


20
24



berpiztu

EUSKADIKO EKONOMIA ETA ENPLEGUA
SUSPERTZEKO PROGRAMA (2020-2024)





Edukien aurkibidea:

| | |
|---|------------|
| BERPIZTU PROGRAMAREN AURKEZPENA | 6 |
| LABURPEN EXEKUTIBOA | 10 |
| 1. EKONOMIA SUSPERTU, ENPLEGUA BERRESKURATU ETA ERRESILIENTZIA LORTZEKO KONPROMISO IRMOA | 13 |
| 1.1. Eszenatoki berri bat sortzen duen krisi-globala | 14 |
| 1.2. Euskadiko erakunde guztietatik pandemiari eman beharreko berehalako erantzuna | 19 |
| 1.3. Euskadik jorratu behar dituen 3 trantsizio global handiak barne hartzen dituen horizontea | 30 |
| 2. HERRI-ESTRATEGIA GLOBAL BATEAN (GIZA GARAPEN JASANGARRIA) TXERTATUTAKO PROGRAMA | 40 |
| 2.1. Herri-estrategia global batean (Giza garapen jasangarria) txertatutako programa | 41 |
| 2.2. Euskal erakundeen artean partekatutako programa globala | 43 |
| 2.3. Euskadiko egitura-erreformen plan baten parte den programa | 46 |
| 2.4. Nazio Batuen 2030erako GJHeikin bat datorren programa | 48 |
| 2.5. "Next Generation EU" tresna europarrarekin bat datorren programa | 51 |
| 3. HAZKUNDE JASANGARRIRAKO ETA ENPLEGURAKO PROGRAMA. EKONOMIA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEKO PROGRAMA 2020-2024 | 55 |
| 3.1. Programaren helburu nagusiak | 56 |
| 3.2. Bi jarduera-ardatz handi eta zeharkako eremu bat | 58 |
| 3.3. Aurrekontu-egoeren eta enplegu sustatuen laburpena | 62 |
| 3.4. Programaren ardatz bertikalen garapena | 66 |
| 3.4.1 I. ardatza - Ekonomia suspertzeko programa | 67 |
| 3.4.2 II. ardatza - Enpleagua suspertzeko programa | 84 |
| 3.5. Programaren ikuspegi orokorra | 100 |
| 3.6. Gobernantza-eskema | 102 |
| E. 1. ERANSKINA | 105 |
| BERPIZTU PROGRAMAREN HASIERAKO OINARRIAK ERAGILE INSTITUZIONAL ETA SOZIOEKONOMIKOEKIN EGIAZTATZEKO ETA EKARPENAK EGITEKO PROZESUAREN LABURPENA | |

Edukien aurkibidea:

Taulak eta irudiak.

Taulak:

| | |
|--|--------------|
| 01.T.: BPGd-ren hazkunde aurreikusia (%). Iturria: "OECD Interim Report September 2020. | 15 |
| 02.T.: Espainiako ekonomiaren proiektzio makroekonomikoak, 2020ko irailaren 10a. Iturria: Espainiako Bankua. | 16 |
| 03.T.: Euskadiko 2019-2021 koadro makroekonomikoaren berrikuspena, 2020ko irailaren 25ekoa. Ikuspegi orokorra. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saila. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. | 17 |
| 04.T.: Euskadiko 2019-2021 koadro makroekonomikoaren berrikuspena, 2020ko irailaren 25ekoa. Sektoreko zehaztapenak. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saila. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. | 18 |
| 05.T.: Covid-19aren aurkako neurri sozial eta ekonomikoen laburpena (2020ko maiatza). Iturria: Eusko Jaurlaritza. | 22-23 |
| 06.T.: Bizkaia Aurrera! - Koronabirusaren krisiaren ostean lurraldea suspertzeko premiazko Plana. Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. | 25 |
| 07.T.: A Plana - Araba Suspertzeko Plan Ekonomikoa. Iturria: Arabako Foru Aldundia. | 27 |
| 08.T.: Suspertze Ekonomiko eta Sozialeko Plana, Lehen sektorearen jarduera ekonomikoa mantentzeko Plana, eta Gipuzkoan turismoa suspertzeko Plana. Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. | 29 |
| 09.T.: I. ardatza. Inbertsioen eta enplegu sustatuen laburpena | 83 |
| 10.T.: I. ardatza. Aurrekontu-inbertsioen zehaztapena, urteka | 83 |
| 11.T.: II. ardatza. Aurrekontu-inbertsioen laburpena | 98 |
| 12.T.: II. ardatza. Aurrekontu-inbertsioen zehaztapena, urteka | 98 |
| 13.T.: II. ardatza. Enplegu sustatuen zehaztapena, urteka | 99 |



Edukien aurkibidea: Taulak eta irudiak.

Irudiak:

| | | |
|-----------|---|-----|
| 1. Ird.: | Hiru trantsizio globalen esparruan gertatzen den krisi bat | 31 |
| 2. Ird.: | Euskadiko indarguneak | 35 |
| 3. Ird.: | Euskadiko hobekuntza-eremuak | 39 |
| 4. Ird.: | Herri-estrategia globala. Giza Garapen Jasangarriaren dimentsioak | 42 |
| 5. Ird.: | Ekonomia eta enplegua suspertzearen aldeko konpromisoaren oinarriak | 44 |
| 6. Ird.: | Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren oinarritzko printzipioak | 45 |
| 7. Ird.: | Euskadirako egitura-erreformen Plana | 47 |
| 8. Ird.: | Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak | 49 |
| 9. Ird.: | Giza Garapen Jasangarriaren dimentsioak eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako ardatzekiko bateragarritasuna | 50 |
| 10. Ird.: | “Next Generation EU”rekin bat datorren programa | 52 |
| 11. Ird.: | “Next Generation EU” Funts Europarra | 53 |
| 12. Ird.: | “Next Generation EU” Funtsaren I. Zutabea | 54 |
| 13. Ird.: | Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren helburuak | 57 |
| 14. Ird.: | Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren ardatz bertikalak | 59 |
| 15. Ird.: | Zeharkako eremua: Enpleguaren kalitatearen hobekuntza | 61 |
| 16. Ird.: | Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa | 63 |
| 17. Ird.: | Baliabide ekonomikoak eta finantzaketa | 63 |
| 18. Ird.: | Enplegu sustatuak | 64 |
| 19. Ird.: | Lortu beharreko emaitza nagusiak | 65 |
| 20. Ird.: | I. ardatza. Ekonomia suspertzea: Jarduera-politikak | 68 |
| 21. Ird.: | Euskal ekosistema industrialak | 77 |
| 22. Ird.: | II. ardatza. Enplegua sortzea: Jarduera-politikak | 85 |
| 23. Ird.: | Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren laburpena | 101 |

Berpiztu Programaren aurkezpena.

1. AURREKARIAK

“Berpiztu”: Suspertu. Horixe da Euskadiko erakundeek planteatu duten erantzuna, Covid-19aren osasun-pandemiak enpleguan eta ekonomian sortutako krisiari aurre egiteko. Galdutako enplegu guztia berreskuratzea eta langabezia-tasa % 10etik behera jartzea da helburu komuna, eta halaxe jaso da Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek iragan irailaren 29an aurkeztu zuten konpromisoan.

Lehentasunezko konpromiso politiko eta instituzionala da Berpiztu. Politikoa da, “Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren” aldeko apustua jasotzen delako EAJ eta PSEk iragan 2020ko irailaren 1ean formalizatutako Koalizio Akordioan. Eta instituzionala da, Legebiltzarrera bidalitako Gobernu Programak berak legealdi honetako lehentasunen artean aurreikusten duelako.

Konpromiso horri erantzuteko, Lehendakariak, legealdiaren lehen hilabetean, Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren oinarriak aurkeztu zituen irailaren 29ko Gobernu Kontseiluan. Oinarri horiek eragile ekonomiko eta sozialekin egiaztatu beharko ziren urrian zehar, azaroko lehen hamabostaldian Berpiztu Programaren behin betiko agiria egin eta onartzeko.

2. PROGRAMA EGIAZTATU ETA EKARPENAK EGITEKO PROZESUA

Urrian zehar, Berpiztu Programa egiaztatzeke eta ekarpenak egiteko prozesua abiarazi da. Programa barne-mailan egiaztatu da, Jaurlaritzaren baitako sail inplikatuekin, eta, kanpo-mailan, beste erakunde batzuekin eta Elkarrizketa Sozialaren Mahaiairekin, bai eta Euskadin koronabirusaren pandemiaren jarraipena egiteko martxan jarri den Mahai Sozioekonomikoko beste eragile batzuekin ere.

Programa egiaztatu eta ekarpenak egiteko prozesu hori, zehazki, agiri honen **1. Eranskinean** jaso da.

Egiaztapen-prozesu horren ondorioz, hiru Foru Aldundiekin batera konpromiso bat hartu zen, ekonomia eta enplegua suspertzeko. Ekarpen ugari ere jaso dira, behin betiko agirian sartu direnak edo legealdian zehar Programa garatu eta betearazteko orduan kontuan hartuko direnak. Egiaztapen-prozesu horren emaitza da, hain zuzen ere, azkenean 2020ko azaroaren 3an onartutako Berpiztu Programa.



Berpiztu Programaren aurkezpena.

3. EZAUGARRIAK. ZER EZ DA BERPIZTU

EZ DA AURREKONTUTIK KANPOKO APARTEKO FUNTS BAT.

Berpiztu ez da Jaurlaritzak legealdi honetarako duen aurrekontu-egoerarako funts osagarrien programa bat. Ondorioz, ez ditu aurreikusten Europar Batasunetik irits litezkeen aparteko funtsak. Ziurtasunean oinarritutako inbertsioek eta konpromisoek osatzen duten eszenatokia da. Ondorioz, Jaurlaritzak bere baliabideekin eta legealdiko lau urteetarako aurreikusitako aurrekontu-gaitasunarekin burutuko dituen ekintzak barne hartzen ditu, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egungo eszenatokiak eta aurreikuspenak kontuan hartuta.

Funts europarrak iristen badira eta horiek proiektu zehatzetara atxikitzen badira, izan ere, funtsok iristen diren unean bertan sartuko dira Jaurlaritzaren aurrekontuetara, eta orduan jasoko dira Berpiztu Programan funts osagarri gisa.

Azkenik, Berpiztun ez dira aurreikusten jarduera publikoen ondorioz sektore pribatutik sor daitezkeen inbertsioak. Alderdi horiek ez dira programa honetan jasotzen, argitasunaren eta zuhurtziaren izenean. Aurrekontu-egoera publiko, egiazko eta egiaztagarria soilik jaso nahi dugu.

EZ DA PROGRAMA HOLISTIKO BAT.

Programa honetan ez da jasotzen Jaurlaritzaren ekintza guztia. Helburua ez da dena jorratzen duen programa orojakile bat izatea, kasu horretan Jaurlaritzaren aurrekontu guztiei buruz ariko baikinateke. Gizarte-politikak eta hezkuntzarekin, osasunarekin eta gizarteratzearekin lotutako gizarte-zerbitzuak bermatuta daude. Halaber, ohiko aurrekontuaren ia % 80 politika horiek estaltzeko erabiltzen jarraituko da.

Jarduera ekonomikoa suspertu eta enplegua dinamizatzearekin zuzenean lotutako jarduera eta politikak jorratzen ditu batez ere Berpiztu Programak. Osasun-pandemiak sortutako pandemia

ekonomikoari aurre egiteko beharrianari erantzuteko helburua dauka. Beraz, ahaleginak ekonomia berpiztu eta eraldatzeko prozesua jorratzera bideratu behar dira, inor atzean utzi gabe. Horretarako, galdutako enplegu guztia berreskuratu behar da, eta jarduera ekonomikoko aukera berriak sortu, Euskadi digital, Euskadi berde eta Euskadi inklusiboaren alde egiteko, Europar Batasunaren berezko estrategiarekin bat.

EZ DA PROGRAMA ITXI BAT.

Berpiztu Programaren gainean onartu den agiria ez dago itxita, ez bertan agertzen diren politikei eta proiektuei dagokienez, ez eta aurrekontu-esleipenei eta enpleguaren gaineko ondorioei dagokienez ere. Aitzitik, agiri irekia, malgua eta dinamikoa da. Irekia proiektu desberdinek izan dezaketen bilakaerara. Malgua, bere edukiak egokitu egingo baititu unean-unean egoera ekonomikorako egokiena den erantzunera. Dinamikoa, aurrekontuaren bilakaera egokitu egingo delako urtero Legebiltzarrean onartutako aurrekontuen arabera eta aurreikusitako ardatz eta politiketako egikaritze-mailaren arabera. Berpiztu, beraz, programa bizia da.

Berpiztu Programaren aurkezpena.

4. EZAUGARRIAK. ZER DA BERPIZTU

Berpiztu Programa ondoen definitzen duten ezau-garriak jarraian laburbiltzen diren hauek dira:

Programa honek ziurtasunean eta segurtasunean oinarritutako aurrekontu-horizontea planteatzen du Euskadiko eragile sozial eta ekonomikoentzat.

Programa errealista da, eta enplegua sortzea eta ekonomia suspertu eta eraldatzea du helburu.

Programa irekia da, eta legegaldian zehar planteatzen diren politiken bilakaeraren arabera egokituko da.

Programa honek Euskadiko erakundeen lan komuna konektatzen du, hots, Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien artean adostutako konpromisoen dekalogoan agertzen dena.

Programa proaktiboa da, eta Europa eta mundua bizitzen ari diren hiru trantsizio globalak hiru aukera handi gisa ulertzen ditu:

- Trantsizio teknologiko-digitala.
- Trantsizio energetiko-klimatiko.
- Trantsizio sanitario eta soziala.

Euskadiko ekonomia berreraiki, eraldatu eta berpizteko Programa, helburu argia eta zehatza duena: Osasun-pandemian galdutako enplegua berreskuratzea eta langabezia-tasa berria % 10etik behera kokatzea.

5. ABIAPUNTU SOLIDOAK ETA ERREALISTAK

Berpiztu Programaren aurrekontu- eta inbertsio-mailako horizontea egitean abiapuntu zuhurrak, solidoak eta errealistak baliatu dira, eta, era berean, enplegu dinamizatuen aurreikuspenak egin dira.

AURREKONTU-HORIZONTEA.

Jasotako inbertsioen abiapuntua 2020. urtean betetako aurrekontua da, legegaldia martxan jarri zene-tik aurrerakoa soilik kontuan hartuta. Horretarako, 2020. urterako onartutako aurrekontu osoaren % 50 balioetsi da. Programa eta partida desberdi-nek ondoren izango dituzten urteko hazkundeak aurrekontuetan jasotzean, bestetik, aurrekontu-aurreikuspen orokorren antzeko hazkunde mailaz mailakoa izango dutela balioetsi da hasiera batean. % 0,5eko, % 1eko, % 2ko eta % 3ko hazkundea 2021ean, 2022an, 2023an eta 2024an, hurrenez hurren. Balioespen horiek eguneratu egingo dira, urtero onartzen diren aurrekontuen arabera.

ENPLEGU-HORIZONTEA.

Emaitzak, enplegu induzituen kopuruari errepara-tuz gero, aurreko legegaldietako esperientziaren arabera balioetsi dira. Emaitza horiei doikuntza-faktore zuzentzaileak aplikatu zaizkie, osasun-pandemiak urte normalizatu bateko enplegu-sorkuntzan izango dituen ondorio negatiboak kalkulatzeko. Horrenbestez, 2020an eta 2021ean % 30eko eta % 70eko doikuntza-faktoreak erabili dira, hurrenez hurren, urte “normalizatuko” balioen gainean. 2022. urteaz geroztik, enpleguaren emaitzak guztiz berreskuratuko direla aurreikusi da, koronabirusaren krisiaren aurreko urte nor-malizatu batean bezala.

ENPLEGU DINAMIZATUEN KOPURUA ZUZEN INTERPRETATZEKO IRIZPIDEAK.

Aurreko lan-hipotesien gainean, Berpiztu Progra-mak 130.000 enplegu sustatuko dituela balioetsi da. Noski, ez da enplegu garbia (= ‘sortutako enplegu guztia’ - ‘suntsitutako enplegua’), baizik



Berpiztu Programaren aurkezpena.

eta programa horiek enpleguan duten eragin positiboa(*). Gizarte-segurantzako kotizatzaile berri gisa sar daitezkeen enplegu guztiak hartu dira kontuan, beren iraupena edozein dela ere. Gainera, enplegu publikoaren kapituluan, legealdirako aurreikusitako enpleguaren eskaintza publikoen aurreikuspena jasotzen dute datuek. Kasu guztietan ez dira plaza berriak, baina finkapen bat ageri da, sektore publikoko lanpostuen egonkortasunaren zioz sortua.

(* Oharra: BBVAren azken txostenak 22.000 enpleguko saldo negatiboa aurreikusten du Euskadin 2020-2021 aldirako, eta galdutako enplegu guztia ez da berreskuratuko 2023-2024 aldira arte. Berpiztu programak lan-merkatua dinamizatu nahi du, enplegua berreskuratzeko prozesua azkartzeko eta langabezia-tasa % 10etik behera kokatzeko.

6. KONPROMISOEN DEKALOGOA, ERRONKA BATEN LEKUKO

1. Inbertsio publikoarekiko konpromisoa

13.250 milioi euroko ahalegin publikoa egitea, ekonomia suspertzeko eta enplegua dinamizatzeke.

2. Enpleguarekiko konpromisoa

Langabezia-tasa % 10etik behera kokatzea eta 130.000 enplegu dinamizatzea.

3. Gazteriarekiko konpromisoa

Lehen lan-esperientzia eskaintzea 25.000 gazte baino gehiagori, hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programetan, kontratazio-konpromisoa duen prestakuntzan, enplegurako prestakuntza dualean, gazte-ekintzazailtzan eta nazioarteko espezializazioan.

4. Enpleguaren kalitatea hobetzeko konpromisoa

Gizonen eta emakumeen artean soldata-arrakala murrizteko, zaintza-eredu arduratsu berriak garatzeko, lana eta familia uztartzeko eta kontratazioan iruzurra jazartzeko programak garatzea.

5. I+G+b-rekiko konpromisoa

Inbertsio publikoa urteko batez bestekoan % 6 areagotzeko lan egitea, Euskadi berrikuntza-gune europarra izan dadin eta trantsizio globalei aukera moduan egin dakien aurre.

6. Estrategia europarrarekiko konpromisoa

Europar Batasunak ezarritako eraldaketa-ardatz nagusiekin bat, Euskadi digitalagoa, Euskadi berdeagoa eta Euskadi inklusiboagoa eraikitzea.

7. Garapen jasangarrirako helburuekiko konpromisoa

Emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin zuzenean lotutako garapen jasangarrirako helburuei erantzutea, bai eta erronka teknologikoei, erronka sozialei nahiz ingurumen-arloko erronkei ere. Horiek, izan ere, funtsezko zereginna dute energia berriztagarrietarantzko trantsizioa, eraginkortasun energetikoko irizpideetan oinarritutako hiri-birgaikuntza energetikoa eta mugikortasun jasangarria (trenbidea izanik lehentasunezko ardatza) bizkortzeko orduan.

8. Industriarekiko konpromisoa

Euskadiko ekonomia eraldatu eta berpizteko motortzat industria jotzen du. Industria aurreratua, digitalizatua eta nazioartekotua. Industria berria, inklusiboagoa eta partaideagoa.

9. Enplegu publikoarekiko konpromisoa

Administrazio publikoaren egonkortasuna eta berrikuntza sustatzea, informazioaren teknologia berriak eta digitalizazioa sartuz, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetzeko.

10. Zerbitzu publikoak hobetzeko konpromisoa

Osasun- eta hezkuntza-sistemak fisikoki eta digitalki eraldatzea. Osasuna, zahartzarua eta zaintzak jotzen dira ekonomiarekin eta enpleguarekin lotutako aukera-nitxo berri horiek dinamizatzen dituzten elementutzat.

Laburpen exekutiboa

Covid-19aren pandemiak eragindako krisiak muturretik aldatu ditu bai egungo egoera ekonomikoa, bai mundu-mailan etorkizunera begirako aurreikuspen ekonomikoak. OECDren aurreikuspenen arabera, munduko ekonomiak % 4,5eko uzkurdua bortitza jasango du 2020an, hots, 2008-09ko finantza-krisian erregistratutakoa baino askoz okerragoa (munduko BPGd-ren -% 1,7). Covid-19ak eragindako krisiaren inpaktua eta sakontasuna Europan handiagoak izango dira (BPGd-ren -% 7,9) munduko beste edozein lekutan baino, eta eragin berezia izango du Espainiako estatuan (BPGd-ren -% 11,1).

Europako ekonomia eta Estatu-mailako ekonomia hertsiki lotuta daudenez, euskal ekonomiak ere Covid-19aren krisiaren eragin handia izango du, bai jarduera ekonomikoan, 2020an BPGd % 10,1 jaitea aurreikusten baita, bai enpleguan, langabezia-tasa % 11,2ra igotzea aurreikusten baita. Krisia gogor jotzen ari da euskal ekonomiaren funtsezko sektore batzuetan, hala nola automobilgintzaren industrian eta aeronautikan, energian, zerbitzuetan eta, oso bereziki, merkataritzan eta turismoan.

Badaude nazioarteko testuingurua eta horizontea zehazten dituzten megajoera batzuk, kontuan hartu beharrekoak. Izan ere, horiek erronka ekarriko dute bai maila globalean, bai gure errealitatean. Megajoera horiek trantsizio teknologiko-digitalaren, energetiko-klimatikoaren eta sanitario-sozialaren hirukotean laburbiltzen dira. Helburua Euskadi digitalagoa, berdeagoa eta inklusiboagoa lortzea da.

Erakundeen arteko lankidetzak eta koordinazioa ezinbestekoak dira eszenatoki berriari erantzuteko. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzak Foru Aldundiekin batera estrategia bat ezarri du, modu koordinatuan kudeatzeko krisia. Hala, larrialdi-planak eta neurri sanitario, sozial eta ekonomikoak hartu ditu eragin gehien jasaten ari diren pertsonen eta sektoreen alde.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek “Ekonomia eta enplegua suspertzearen aldeko konpromisoa” partekatu dute, konpromiso hori baita

Ekonomia eta enplegua suspertzeko BERPIZTU Programaren oinarri komuna. Ekonomia eta enplegua suspertzearen aldeko konpromisoa Lehendakariak berak planteatu zuen Covid-19aren Mahai Sozioekonomikoak maiatzaren 27an egindako bileran: “Behar dena egingo dugu ahalik eta enplegu gehien mantentzeko eta galdutako enplegu guztia berreskuratzeko”.


BERPIZTU Berreraikuntza Programa Herri-Estrategia Global baten baitan (Giza Garapen Jasangarria) sartzen da, eta, hala, Nazio Batuen “2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuak” betetzen laguntzen du.

Era berean, Programa bat dator “Next Generation EU” Funts Europarrarekin. Azken hori, zehazki, erreferentzia-esparru globala da baliabide publiko eta pribatuak Europa ekologiko, digital eta erresiliente bat eraikitzen bideratu daitezkeen, hazkuntza jasangarri eta integratzailearen bidez, gizarte- eta lurralde-koherentsia indartu ahal.

Euskadik orientazio horiek partekatu eta bere egiten ditu, Ekonomia eta enplegua suspertzeko BERPIZTU Programa definitzeko oinarri gisa. Hala, bere programako ardatzen eta errekonstruzio-tresna europarraren arteko harremana ezartzen du. Horrenbestez, Ekonomia Suspertzeko Ardatzak Errekonstruzio eta Erresilientzia Mekanismoaren filosofia eta funtsa txertatzen ditu, eta, bestalde, Enplegua Sortzeko Ar-



Laburpen exekutiboa



datzak gizarte- eta lurralde-koehesiorako REACT-EU Programaren dimentsio handiak jorratzen ditu.

Bestalde, egitura-erreformen esparru global baten baitan sartzen da Programa. Euskadik, izan ere, egitura-erreforma horiek garatzeko asmoa du, Europako gomendioen arabera, enpleguaren dimentsioak, ekonomiaren susperraldia eta erre-silientzia indartze aldera.

Ekonomia eta enplegua suspertzeko BERPIZTU Programa 2020-2024 ekonomia eta enplegua berreskuratzeko funtsezko erronken gaineko erantzun integrala da, eta bi ardatz nagusitan egituratzen da: “Ekonomia suspertzea” eta “Enplegua sortzea”. Ardatz horiek 12 jarduera-politikatan hedatzen dira, eta horiek, era berean, ekonomia eta enplegua berreskuratu eta suspertzeko tresna eta neurri desberdinen erreferentzia-esparrua osatzen dute, estrategiaren aldiari zehar garatzeko. Era berean, hirugarren ardatza edo zeharkako eremua zehaztu da, “Enpleguaren kalitatearen hobekuntzari” buruz, Programaren hamahirugarren politika osatzen duelarik.

Programa horretan, 2020-2024 aldirako 13.250 milioi euroko aurrekontu-inplikazioa aurreikusten da, diru horrekin euskal ekonomian 130.000 enplegu sustaturen gainean eragina izateko (*zehaztasunak hurrengo orrian*).

I. ARDATZA

Ekonomia suspertzea

1. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialen gaineko inbertsioa.
2. Ikerketa, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala.
3. Energia- eta ingurumen-trantsizioa.
4. Industria eta ETEak, Zerbitzu Aurreratuak, Sormen Industriari eta Nazioartekotzea.
5. Elikagaigintza.
6. Merkataritza eta Turismo eta Kultura Industria.

II. ARDATZA

Enplegua sortzea

7. Ekintzailletza. Enpresa berriak
8. Enplegurako prestakuntza.
9. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak.
10. Renove programak. Eraikuntzaren birgaikuntza.
11. Enplegu publikoaren eskaintzak (EPEak).
12. Gazteen enplegua sustatzeko Talka-plana.


III. ARDATZA

Zeharkako eremua.

Enpleguaren kalitatearen hobekuntza eta genero berdintasuna

13. Enpleguaren kalitatearen hobekuntza:
 - Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala murriztea.
 - Prekaritatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak).
 - Prebentzioa eta lan-segurtasuna areagotzea
 - Lan-ikuskaritza indartzea.
 - Erantzukidetasuna eta lanaren eta familiaren kontziliazioa sustatzea.
 - Enpresa-eredu inklusiboagoak eta partaideagoak lortzeko bidean aurrera egitea.
 - Elkarrizketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa bultzatzea.

Laburpen exekutiboa



Oharra: 2020-2024 legeingintzadirako inbertsioei eta enpleguari buruzko datuak, legeingintzaldia hasi zenetik (enplegua sortzeko, hasierako estimazioen % 30 hartu da 2020an eta %70 2021ean, %100eko EPEak izan ezik, pandemiaren eragina deskontatzeko. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren %50 kalkulatu da, abalak ezin ezik, %100ean egotzen baitira).



**1.
Ekonomia suspertu,
enplegua berreskuratu
eta erresilientzia lortzeko
konpromiso irmoa.**

1.1.



1.1.
Eszenatoki berri
bat sortu duen
krisi globala.



Aurrekaririk gabeko krisi globala, eszenatoki berri bat sortu duena.

Covid-19aren pandemiak eragindako krisiak muturretik aldatu ditu bai egungo egoera ekonomikoa, bai mundu-mailan etorkizunera begirako aurreikuspen ekonomikoak. Pandemia global bati aurre egin behar izango zitzaioala aurreikus zitekeen aukera bat zen arren, ez genekien zeintzuk izango ziren pandemia horren inplikazioak maila sanitarioan eta ekonomikoan. Covid-19aren pandemiak giza kostu handia eragin du eta, bizitzak babestu asmoz eta osasun-sistemei egoera horri aurre egiteko aukera emate aldea, beharrezkoa izan da isolamendua, konfinamendua eta jarduera ekonomikoaren geldialdi orokorra bezalako neurriak ezartzea, birusaren hedapena geratzeko.

Testuinguru horretan, deskribatutako krisi sanitarioa eragin larriak izaten ari da jarduera ekonomikoan. Dagoen ziurgabetasun-egoerak baldintzatu egiten du mundu-mailako hazkundeari buruz egin daitekeen edozein pronostiko. Izan ere, krisi honen ondorio ekonomikoak aurreikusteko zailak diren elkarrekintzen eta faktoreen menpe daude, tartean: pandemiaren ibilbidea, euste-ahaleginen intentsitatea eta eraginkortasuna, eskaintzaren gainerako nahasdura-maila, baldintzen gogortze bortitzaren eraginak munduko finantza-merkatuetan, gastu-patroien aldaketa, jarrera-aldaketak (esaterako, jendeak merkataritza-guneetara joateko edo garraio publikoa erabiltzeko duen mesfidantza), lehengaien prezioaren hegakortasuna eta konfiantzaren gainerako ondorioak.

Administrazio publikoek osasun-sistemetara bideratutako gastua areagotu beharko dute, beren gaitasunak eta beren baliabideak indartzeko. Gastu hori inbertsio garrantzitsu moduan ulertu beharko litzateke, bai gizakien osasunerako, bai lurraldearen osasun ekonomikorako, epe ertainean nahiz epe luzean. Gainera, politika ekonomikoek arindu egin beharko dute jarduera ekonomikoaren murrizketak pertsonengan, enpresetan eta finantza-sisteman izango duen eragina. Horretarako, desazelerazioaren ondoriozko eraginak murrizteko eta ekonomia ahalik eta arinen suspertzen dela bermatzeko ahalegina egin beharko dute, are pandemia murrizten den aldi berean ere.

OECDren aurreikuspenen arabera, munduko ekonomiak 2020an % 4,5eko uzkurdua bortitza jasan du, hots, 2008-09an jasandako finantza-krisian erregistratutakoa baino askoz okerragoa (munduko BPGd-ren $-\% 1,7$). Nahiz eta pandemiaren aurretik lortutako mailetatik behera egongo den BPGd, 2021erako susperraldi partzial bat egotea espero da. Hala, mundu-mailan % 5,0 haztea aurreikusten da, pandemia atzera egiten ari den eszenatokian, 2020ko bigarren seihilekoan, euste-neurriekin jarraitu ahala (1. TAULA).

1. TAULA.
BPGD-ren HAZKUNDE AURREIKUSIA (%)
2020 ekaina

| | 2019 | 2020 | 2021 |
|--------------------|------|-------|------|
| Mundua | 2,6 | -4,5 | 5,0 |
| AEB | 2,2 | -3,8 | 4,0 |
| Txina | 6,1 | 1,8 | 8,0 |
| Europa (eurogunea) | 1,3 | -7,9 | 5,1 |
| Espainia | 2,0 | -11,1 | 7,5 |
| Euskadi (**) | 2,2 | -10,1 | 8,9 |

Iturria: "OECD Economy Outlook, Interim report september 2020".
Espainiako datuak: iturria "2020ko ekainaren 9ko OECD Economy Outlook".
() Euskadiko datuak:** Iturria: "Euskadiko koadro makroekonomikoaren berrikuspena", 2020ko irailaren 25ekoa. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eszenatoki berri bat sortu duen krisi globala.

Europa-mailan, euroguneko BPGd errealak % 11,8ko erorketa historikoa erregistratu zuen 2020ko bigarren hiruhilekoan. Ondorioz, Europako Batzordeak babes ekonomiko nabarmena iragarri du, diru, zerga eta enpleguaren arloko politiken bidez. Politika horiek lagungarri izan beharko lukete familien errenta-mailei eusteko eta finantza-bideen bitartez handipen kaltegarriak sortzea saihesteko. Kasu horien arabera, OECDk aurreikusten du 2020an eurogunean BPGd errealak % 7,9 jaitsiko dela eta 2021ean % 5,1eko errebotea egongo dela (1. TAULA).

Estatu-mailan, BPGd errearen erorketa 2020ko bigarren hiruhilekoan % 18,5koa izan zen (eurogunearen multzoko 11,8aren aldean), eta, hala, Espainia eurogunearen multzoan eragin gehien jasan duenetakoa bihurtu da, nola konfinamendu-neurri zorrotzagoak ezarri dituelako, hala bere ekonomiaren berezko egitura-bereizgarri batzuk tarteko. Egondako krisiak eragin handia izan du eskaintzan. Hala, erregistratutako serie historikoan erorketarik handiena jasan dute jarduera-mailek, nahiz eta abal publikoen programek eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek partzialki arindu duten. Krisiak, era berean, eragina izan du eskarian. Izan ere, kutsatzen erritmoa eteteko mugikortasuna mugatu da, eta, ondorioz, bortizki jaitsi da kontsumoa, bai etxekoa, bai kanpokoa. Horrez gain, epe laburreko inbertsioa ere jaitsi da (martxan zeuden proiektuak eten dira), bai eta epe ertainekoa ere (batetik, espektatiba ekonomikoak narriatu egin direlako ziurgabetasuna handia den testuinguruan, eta, bestetik, aktiboen balioa galdu egin delako).

Espainiako Bankuak, OECDk eurogunearen gainean egindako proiektzio makroekonomikoak elikatze aldera, proiektzio-ariketa bat egin du, bi eszenatoki posible kontuan hartuta: bat susperraldi goiztiarrekin lotua eta, bestea, mailaz mailako susperraldiarekin lotua. Susperraldi goiztiarreko eszenatokian Espainiako BPGd % 10,5 eroriko litzateke 2020an, 2021ean % 7,3 igo baino lehen. Bestalde, mailaz mailako susperraldiaren eszenatokian, ekonomiaren hazkundeak denbora gehiago beharko luke burutzeko. Ondorioz, 2020an produktuaren erorketa % 12,6koa litzateke, eta 2021ean, bestalde, % 4,1 igo litzateke (2. TAULA).

Krisiaren dimentsio ekonomikoek gizartean ere badute eragina, besteak beste enplegua suntsitze-ko orduan. Nazioarteko Diru Funtsarentzat, Espainian langabezia-tasa % 20,8ra igoko da, Europako Batzordearentzat % 18,9ra, eta Espainiako Bankuarentzat, kasurik txarrean, % 19,6 igo ahalko litzateke (2. TAULA).

2. TAULA ESPAINIAKO EKONOMIAREN PROIEKTZIO MAKROEKONOMIKOAK (%) 2020ko irailaren 10a

| ALDAGAIA | SUSPERRALDI GOIZTIARRA | | | MAILAZ MAILAKO SUSPERRALDIA | |
|-----------------|------------------------|-------|------|-----------------------------|------|
| | 2019 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| BPGd | 2,0 | -10,5 | 7,3 | -12,6 | 4,1 |
| Langabezia-tasa | 14,1 | 17,1 | 19,4 | 18,6 | 22,1 |

Iturria: Espainiako Bankua.

EUSKADIN ERAGIN NABARMENA DUEN KRISIA

Europako ekonomia eta Estatukoa oso lotuta daudenez, euskal ekonomiak ere Covid-19aren krisiaren eragin bortitza jasango du, bai jarduera ekonomikoan, bai enpleguaren gainean. Izan ere, pandemiaren ondoriozko krisia gogor jotzen ari da euskal ekonomian gakoak diren sektoreetan, besteak beste industrian eta fabrikazio aurreratuan, energian, zerbitzuetan eta, oso bereziki, merkataritzan eta turismoan.

Testuinguru honetan, non jarduera eten egin den eta pertsonak konfinatu, gaixotasuna gehiago hedatu ez dadin, euskal ekonomiak egoera oso konplikatu bizi izan du. Ondorioz, hasierako aurreikuspenak berrikusi egin behar izan dira, alarma-egoeraren behin betiko iraupena, hari lotutako mugak eta "normaltasun berrira" iritsi arteko deskonfinamendu-



Eszenatoki berri bat sortu duen krisi globala.

prozesuaren mugak ezagutu ondoren, une horretan ere oraindik beren eskumena mugatuta duten jarduerak egongo direla kontuan hartuta.

Zehazki, testuinguru negatibo honetan, non azken urteetako motor ekonomikoa (barne-eskaria) koronabirusaren eragin gogorra jasaten ari den, 2020an BPGd -% 10,1 jaitea aurreikusten da eta 2021erako hazkundera % 8,9koa izatea. Aurreikuspen horrek eragin handia izango du enpleguan. 2020an erorketa % 8,9koa izango dela aurreikusten da (lanaldi osoko 30.000 lanpostu inguru galduta), 2021ean hazkunde indartsu bat egoteko eta harekin 15.100 lanpostu inguru berreskuratzeko. Hala, balio garbietan, suntsitutako lanpostuen balantzea 14.900koa litzateke. Langabezia-tasa, bestalde, % 11,2koa litzateke 2020an, ondoren, 2021ean zuzentzeko, % 10,7ra iritsita (3. TAULA).

Inbertsioa bezalako aldagaiak 2020an beherakada oso nabarmenak erregistratuko dituzte, orain arte eduki gabeak. Ondorioz, kapital-eraketa gordina % 11,7 inguru murriztuko da urteko batez bestekoan (3. TAULA).

Azken kontsumoari erreparatuz gero, jarrera kontrajarrria egongo da osagai publikoaren eta osagai pribatuaren artean. Izan ere, etenaldiaren kalteak

jasan dituzten kolektibo ugarietara modu eraginkorrean erantzutea eta egonkorgailu automatikoak martxan jartzea beharrezkoa denez, administrazio publikoen gastua nabarmen igoko da, baina familien gastua, bestalde, ia % 11 murriztuko da 2020an, distantzia soziala, konfinamendua eta merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduen itxiera gertatu direlako urtean zehar (3. TAULA).

Prezioetan, BPGd-ren deflaktorea hutsala izango da 2020an, baina pandemia aurreko balioetara itzuliko da (% 1,0 baino apur bat gorago) 2021ean. Ondorioz, deflazioa jasateko arriskua apaldu egingo da. Azkenik, merkataritza-balantzan, kanpoko saldoa negatiboa izango da 2020an, eta, beraz, puntu bat baino apur bat gutxiago kenduko zaio BPGd-ren igoerari, nahiz eta aurreikuspenen arabera 2021ean berriz ere egongo diren hazkunde-datu positiboak, azken urteetan ezagutu diren horietatik gertuago (3. TAULA).

3. TAULA

EUSKADIKO 2019-2021 KOADRO MAKROEKONOMIKOAREN BERRIKUSPENA

2020ko irailaren 25ekoa

| ALDAGIAK EUSKADIN (urtearteko aldakuntza-tasak, %) | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|------|-------|------|
| BPGd | 2,2 | -10,1 | 8,9 |
| Azken kontsumoa | 1,9 | -7,9 | 7,4 |
| Etzeguneetako kontsumoa | 1,8 | -10,8 | 8,9 |
| Administrazio publikoen kontsumoa | 2,2 | 3,1 | 1,5 |
| Kapital-eraketa gordina | 3,3 | -11,7 | 9,3 |
| Barne-eskaria | 2,2 | -9,3 | 8,2 |
| Kanpo-eskariaren ekarpena | 0,0 | -0,8 | 0,7 |
| BPGd nominala | 3,2 | -10,1 | 10,1 |
| BPGd deflaktorea | 1,0 | 0,0 | 1,1 |
| Enplegua (lanpostuak) | 1,6 | -8,9 | 7,9 |
| Langabezia-tasa | 9,6 | 11,2 | 10,7 |

Iturria:
Eusko Jaurlaritzako
Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eszenatoki berri bat sortu duen krisi globala.

Sektoreen ikuspegitik, jarduera nagusi guztiek erregistratuko dituzte murrizketa oso nabarmenak 2020an. Hala ere, eragin aldakorrak antzematen dira bai 2020ko erorketan, bai etorkizuneko susperraldi-erritmoan.

Sektorerik ukituena zerbitzuen sektorea izango da. Bertan, 2020an balio erantsiaren % 9,0 galduko da, eta, aurreikuspenen arabera, 2021ean ia % 7,0 berreskuratuko da, lehen sektorean salbu; azken horretan, nahiz eta hark ere balio erantsia galduko duen, ehuneko baxuagoan galduko du (-% 3,8) 2020an, eta % 8,4 berreskuratuko du 2021ean (4. TAULA).

Industria Euskadiko errealitate ekonomikoaren sektore gako da. Sektore horrek % 7,8 murriztuko du balio erantsia 2020an, eta % 6,4 suspertuko 2021ean. Azkenik, eraikuntzak bere urteko jardueraren % 5,4 galduko du 2020an, eta % 4,6 berreskuratuko 2021. urtean (4. TAULA).

Aurreko krisi ekonomiko batzuetan ez bezala, Covid-19aren pandemiak eragin dako krisia behin-behinekoagoa da, jarduera ekonomikoaren erorkerari erreparatuz gero. Ondorioz, pentsatzekoa da beren finantza-ahalari esker irautea lortu duten enpresek beren jarduera-maila nahiko azkar berreskuratu ahal izango dutela, jardueraren ohiko jardunbidea eragozten duten baldintzak eta mugak kentzen direnean.

Testuinguru horretan, elementu batzuek (*) euskal ekonomiari susperraldi nahiko arina izaten lagun diezaiokete. Horren adibide dira honako hauek:

- Enpresa pribatuen eskutik, balantzeek sendotasun handiagoa dute. Beraz, funts propioetan pisu handiagoa dute (ondarea balantzearen % 33,3 da, hots, 2013ko datuekin alderatuta, % 3ko igoera egon da) eta zorpetze-pisua baxuagoa da (finantza-zorra balantzearen % 29,3 da, hots, 2013ko datuekin alderatuta, % 4,3ko jaitsiera egon da). Gainera, errentagarritasuna berreskuratuko da (ROA % 3,0, 2013ko datuekin alderatuta +% 1,6), eta enpresaren finantza-zaugarritasuna % 9,2 jaitsi da 2013arekiko

- Administrazio publikoek zerga-marjina dute, azken bosturtekoan egondako saneamendu-politika sendoei eta aurrekontuaren egungo oreka-egoerari edo superabit txikiari esker, zor publikoaren maila % 13 ingurukoa baita.

- Bankuen sektorea, bestalde, aurreko krisian baino askoz kapitalizatuago eta saneatuago dago.

Euskadi krisialditik azkar irten dadin (**) aldeko eta kontrako alderdiak aztertuz gero, kontrako elementuen artean ditugu biztanleriaren zahartze-maila altua eta krisiaren eragin gehien jasan duten sektore ekonomikoen mendetasuna (ostalaritza, jate-txeak eta industria, bereziki automobilgintza), eta, bestalde, aldeko faktoreak dira osasun-sistemaren indarra, globalizazio orekatu eta estrategikorako edo “erregionalizaziorako” joera, eta I+G+b-n inbertsioak egiteko beharra, hain zuzen ere Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareak lehendik ere gaitasun garrantzitsuak dituen gaietan.

TABLA 4.
EUSKADIKO 2019-2021
KOADRO MAKROEKONOMIKOAREN
BERRIKUSPENA,
Sektoreko zehaztapenak
2020ko irailaren 25ekoa

| ALDAGAIK EUSKADIN* Urtearteko aldakuntza-tasak | 2019 | 2020 | 2021 |
|--|------|-------|------|
| Lehen sektorea | 0,6 | -4,8 | 8,0 |
| Industria eta energia | 1,1 | -14,0 | 10,5 |
| Eraikuntza | 3,1 | -9,6 | 8,2 |
| Zerbitzuak | 2,5 | -9,0 | 8,5 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saila. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

(*) Iturria: “COVID-19: erresistentzia- eta berreraikitze-neurriak uztartu behar ditugu” & “Covid-19aren eragin sozioekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoan”, Orkestra.

(**) Iturria: “Innobasque, 2020 prospektiba-txostena”. Innobasque.

1.2.



1.2.

**Euskadiko erakunde
guztietatik pandemiari
eman beharreko
berehalako erantzuna.**

Erakundearteko lankidetzaren eszenatoki berriari erantzuteko

Euskadin, erakunde desberdinen artean erantzun koordinatua eta estrategia komuna ezarriz egin zaio aurre pandemiari. Bide horretan, bi fase bereizi dira:

1. FASEA TALKA-PLANA

Krisiari berehalako erantzuna eman zion, osasun-pandemiari eta pandemia ekonomiko eta sozialari aurre egiteko asmoz. Krisiaren lehen oldarraldiari aurre egitea eta ahalik eta jarduera ekonomiko eta enplegu gehien mantentzea izan ziren helburuak. Horretarako, Espainiako Gobernuak ezarritakoen osagarri ziren hainbat neurri hartu ziren, Covid-19aren zioz bizi izan zen alarma-egoerari aurre egiteko.

2. FASEA ERRESISTENTZIA

Hasierako berregarpenak ugaritu egin dira, Euskadin bigarren olatu pandemikoa osatu arte. Ondorioz, birusarekin bizitzeko jarraitu behar da, harik eta txerto segurua eta eraginkorra deskubritzen den arte. Hori dela eta, pandemiari aurre egiteko hasieran hartu ziren neurritako batzuk luzatu egin behar izan dira, eta halaxe jarraitu beharko dute beharrezkoa den aldira.

Osasun-sistema indartzen jarraituko da, kutsatutako pertsonak ahalik eta arinen identifikatzeko, beren harremanen trazadura ezartzeko, nahiz gaixotasuna zabaldu dadila saihesteko (BIZIBERRI 2). Familia eta pertsona zaurgarrienak babesten jarraituko da, krisiaren aurrean gainbeheran eror ez daitezela. Eta pandemiaren ondorioak gehien jasan dituzten enpresei eta autonomoei babesa emango zaie. Izan ere, pandemiak ez die berdin eragiten sektore ekonomiko guztiei. Eragin berezia izaten ari da ostalaritzan, merkataritzan eta turismoan, mugikortasunarekin lotutako industrian, metalurgian eta kautxu eta plastikoen industrian, eraikuntzan, kultura- eta aisialdi-jardueretan, eta hezkuntzarekin lotutako zerbitzuetan.



Euskadiko erakunde guztietatik pandemiari eman beharreko berehalako erantzuna.

EUSKO JAURLARITZAK ONARTUTAKO NEURRIAK (1. FASEA)

Eusko Jaurlaritzak neurri ekonomiko-sozial eta enpresarial batzuk onartu ditu, guztira 1.516 milioi eurotan. Horietatik 1.336 milioi dira Covid-19 Programako neurriak, eta 180 milioi dira Ohiko Programako neurriak.

Covid-19 Programan jasotako neurriek 200 milioi euro bideratzen dituzte osasun-sistema indartzerara, 55 milioi euro kolektibo kaltetuenentzat (pertsonek eta familiak) eta 1.081 milioi euro enpresa eta pertsona autonomoentzat.

Osasun-sistamarako 200 milioi euroak medikamentuak kudeatzeko eta osasun-materiala erosteko, prebentzio-arreta emateko, telefono bidezko aholkularitza eskaintzeko, ospitale-zentroetan eta etxeko arretan langileei babesa emateko, ospitale-espazioak berrantolatze eta kutsatutako pertsonen arreta emateko gune berriak prestatzeko erabiltzeko dira.

Oinarrizko zerbitzuak zaindu eta enplegua babesteko, jarduera ekonomikoa mantendu beharra dago, eta, horretarako, finantza-babeseko programak baliatu dira, batez ere enpresa txiki eta ertainei eta pertsona autonomoei zuzenduta.

Gainera, **familiei laguntza zuzenak** eman zaizkie, lana eta familia uztartzeko. Familientzako konpentsazioak ezarri dira garraio-zerbitzuen, laguntza-

zerbitzuen eta jantokiaren gastuetan, eta alokairu-gastuak konpentsatzeko laguntzak onartu dira. Hala, salbuespenak ezarri dira alokairu babesteko parke publikoetako maizterrentzat, baldin eta langabezia geratu badira edo zaugarritasun ekonomikoko egoeran badaude. Halaber, etxebizitza libreetan alokatzeko laguntzak bideratu dira.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak 180 milioi euro bideratu ditu Ohiko Programan jasotako neurrietara (Covid-19 Programatik kanpo), tartean 33 milioi euro pertsona eta familientzat eta 147 milioi euro enpresentzat eta pertsona autonomoentzat.

Hurrengo orrietan, Eusko Jaurlaritzak pandemiaren aurkako talka-planaren 1. fasean hartu dituen neurrien laburpena jaso da.

Euskadiko erakunde guztietatik pandemiari eman beharreko berehalako erantzuna.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

5. A. TAULA

EUSKO JAURLARITZAK TALKA-PLANAREN 1. FASEAN ONARTUTAKO NEURRIEN LABURPENA 2020ko maiatza

Iturria: Eusko Jaurlaritza

| COVID-19 PROGRAMAKO NEURRIAK | AURREKONTUA (€) |
|---|------------------------|
| EUSKAL OSASUN SISTEMA INDARTZEA | 200.000.000 € |
| Medikamentuen hornidura eta ekoizpena eta osasun-materialaren erosketak | - |
| Prebentzio-arretaren eta telefono bidezko aholkularitzaren indartzea | - |
| Osasun-zentroak garbitu eta desinfektatzeko aparteko neurriak | - |
| Osasun-zentroetako osasun-langileak indartzeko aparteko neurriak | - |
| Etxeke laguntza eta arreta ematen duten osasun-langileak indartzeko aparteko neurriak | - |
| Osasun-zentroetan arreta emateko espazio berrien gaikuntza | - |
| PERTSONA ETA FAMILIENTZAKO NEURRIAK | 54.656.000 € |
| Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) igoera | 16.000.000 € |
| Bazterkeriaren Eremuko Funtza | 10.000.000 € |
| Familia eta lan-bizitza bateragarri egiteko Programaren handitzea | 15.000.000 € |
| Jantoki-kuoten diru-sarreraren murrizketa | 3.897.000 € |
| Jantoki-zerbitzuaren fakturazioaren etetea | 3.764.651 € |
| Haurreskolen fakturazioaren etetea | 390.000 € |
| Jantokiko beken eustea | 2.231.000 € |
| Eskola-garraioaren fakturazioaren etetea | 597.605 € |
| Laguntza-zerbitzuaren fakturazioaren etetea | 125.744 € |
| Salbuetsitako errenten eta gizarte-alokairuko erkidego-gastuen ordainketak | 2.500.000 € |
| Zaugarritasun-egoeran dauden biktimei aparteko laguntza | 100.000 € |
| Euskadin harrera-zentroetan birusaren hedapena saihesteko laguntzak | 50.000 € |
| ENPRESA ETA AUTONOMOEI ZUZENDUTAKO NEURRIAK | 1.081.300.000 € |
| Covid 19aren ondorioz ETEi eta autonomoei finantza-babesa emateko Programa | 1.000.000.000 € |
| ETEi eta autonomoei finantza-babesa emateko Programa | 25.000.000 € |
| Bideratu Covid-19 | 20.000.000 € |
| Finantzaketa-lerroaren kostuak | 13.000.000 € |
| Lehen ekoizpeneko produktu galkorren ekoizpeneko soberakinen erosketak | 6.000.000 € |
| Enpresari indibidualentzako aparteko laguntzak | 16.000.000 € |
| Koronabirusaren kontrako borrokarekin lotutako I+G+b proiektuak | 1.300.000 € |
| GUZTIRA | 1.335.956.000 € |



Euskadiko erakunde guztietatik pandemiari eman beharreko berehalako erantzuna.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

5. B. TAULA

EUSKO JAURLARITZAK TALKA-PLANAREN 1. FASEAN ONARTUTAKO NEURRIEN LABURPENA 2020ko maiatza

Iturria: Eusko Jaurlaritza

| OHIKO PROGRAMAKO NEURRI OSAGARRIAK (COVID-19 PROGRAMATIK KANPO) | AURREKONTUA (€) |
|--|------------------------|
| OSASUN-SISTEMA INDARTZEKO NEURRIAK | 160.000 € |
| COVID-19aren deskonfinamendu-fasean zaintza eta kontrola indartzeko Programa, kasuak eta harremanak kontrolatu eta aztertzeko | - |
| Osakidetzaren eta EHUren arteko lankidetzeta-hitzarmena, koronabirusa antzematen duen RT-PCR testa garatzeko | 160.000 € |
| PERTSONA ETA FAMILIENTZAKO NEURRIAK | 32.829.000 € |
| Zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonen etxebizitza libreen alokairurako laguntzak | 15.529.000 € |
| Ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen aurrekontuaren igoera, garapenerako lankidetzaren kargura | 1.800.000 € |
| Covid-19aren krisian zehar ABEEEn eragina jasan duten pertsonen zuzendutako aparteko funtsa | 15.500.000 € |
| ENPRESA ETA AUTONOMOEI ZUZENDUTAKO NEURRIAK | 146.742.000 € |
| Inplantariak | 390.000 € |
| Industria Digitala: material teknologikoa erosteko laguntzak | 2.360.000 € |
| Industria-programen kredituak itzultzeko atzerapena | 7.450.000 € |
| Indartu Programaren ordainketen aurrerakinak | 1.500.000 € |
| Parke teknologikoetako alokairuen atzerapena | 3.000.000 € |
| Industrialdeetako alokairuen atzerapena | 3.315.000 € |
| Elikadurako Sendotu programen kredituak itzultzeko atzerapena | 400.000 € |
| Nekazaritza, elikagaigintza eta arrantzaren sektoreetarako laguntzak, ekoizpen- eta merkataritza-jarduerari eusteko | 2.000.000 € |
| Arrantzaren sektorean lehiakortasunari eutsi ahal izateko laguntzak | 3.000.000 € |
| Kulturaren arloko profesionalak babesteko Programa | 2.500.000 € |
| Kulturaren eremuko mikroenpresentzako laguntzak | 2.600.000 € |
| Turismo, kontsumo eta merkataritzaren sektoreetarako laguntzak | 15.000.000 € |
| Covid-19aren hedapena saihesteko maskaren tokiko ekoizpenerako laguntzak | 582.000 € |
| Renove 2020 programen aurrekontu-horniduraren luzapena, Covid-19a dela eta | 20.000.000 € |
| Ardogintzako produktuen kanpo-sustapenerako Programaren aurrekontuaren handitzea | 3.800.000 € |
| Eraginkortasun energetikoko jardueretan laguntzeko zenbatekoaren eta epearen igoera | 14.000.000 € |
| Covid-19aren eragina jasan duten enpresa kooperatiboak eta gizarte-ekonomiakoak finkatzeko laguntza | 2.400.000 € |
| Euskal enpresetako langileen eskumenak hobetzeko prestakuntza-ekintzetarako laguntza | 3.200.000 € |
| Covid-19aren aurrean merkataritza-establezimenduak modernizatzen laguntzeko Programa | 1.250.000 € |
| Covid-19aren eragina jasan duten enplegu-zentro berezientzako eta laneratze-enpresentzako aparteko laguntzak. | 6.000.000 € |
| Artisautzako ardo, garagardo eta sagardoa egiten duen sektorerako berme formako finantza-laguntzak (Nekafin Programa) | 50.000.000 € |
| Hirigune Programa, Covid-19aren aurrean Hiriko Merkataritza Lehiakortasun, Dinamizazio eta Lankidetzeta estrategiak sustatzeko | 1.950.000 € |
| Enpresen nazioartekotzea sustatzeko zerbitzuen indartzea | - |
| GUZTIRA | 179.731.000 € |
| COVID-19AREN AURKAKO NEURRIAK, GUZTIRA (Covid-19 Programa + Ohiko Programa) | 1.515.687.000 € |

Euskadiko erakunde guztietatik pandemiari eman beharreko berehalako erantzuna.

Bestalde, Foru Aldundiek ere hainbat talka-neurri ezarri dituzte, Covid-19aren ondorioak arintzeko: bai gizarte-neurriak, bai enpresa eta pertsona autonomoak babesteko neurri ekonomikoak.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ONARTUTAKO NEURRIAK

Bizkaiko Foru Aldundiak Lurraldean suspertzeko premiazko Plana (Bizkaia Aurrera!) diseinatu du, 12 neurri ekonomiko tartean, krisia gehien jasan duten pertsonen eta sektoreen jarduera berreskuratzeke. Inbertsio zuzena eta zerga-pizgarriak ditu, 85,5 milioi eurotan, baina, aurreikuspenen arabera, lurraldearen ekonomian 672 milioi euroko eragina izan dezake. Planak 12 milioi euro birbideratzen ditu foru-sailetan eskuragarri dagoen zenbatekotik, eta 30 milioi euro gehitzen ditu, beren jarduera geratu behar izan duten langile autonomoei laguntzeko (15.343), nahiz lanean jarraitu duten baina ekonomikoki eragina jasan duten horiei laguntzeko (22.764), bai eta krisiaren ondorioz lana galdu duten pertsonen (5.373) eta jarduera geratu behar izan duten enpresa txiki eta ertainen nahiz enpresa handien (3.347) edo ekonomikoki eragina jasan dutenei (6.607) laguntzeko ere. Jarraian, planean jasotako premiazko laguntzarako 12 neurri ekonomikoak jaso dira.



Bizkaia aurrera!



Euskadiko erakunde guztietatik pandemiari eman beharreko berehalako erantzuna.



6. TAULA

BIZKAIA AURRERA! KORONABIRUSAREN KRISIAREN OSTEAN LURRALDEA SUSPERTZEKO PREMIAZKO PLANA

Fuente: Diputación Foral de Bizkaia.

| PLAN BIZKAIA AURRERA! Kolektibo bakoitzarentzako neurri zehatzak. | AURREKONTUA € |
|---|----------------------|
| Pertsona autonomoei eta enpresa txikiei laguntzeko mikro kredituak | 15.000.000 |
| Enplegu-plan berezia | 5.000.000 |
| Kontsumoa sustatzeko bonoak | 5.000.000 |
| Renove Etxea Plana (zerga-kenkariak) | Ez dago eskuragarri |
| Mailegu-gabezia laguntzeko Programa | 150.000 |
| Enpresa eta autonomoei zuzendutako neurriak | 43.497.000 |
| Barne-turismoko Plana | 300.000 |
| Ekonomia suspertzeko laguntza zuzenen Programa | 4.000.000 |
| Bizkaia aurrera! Digitalizazio Plana | 10.400.000 |
| Zerga-neurriak (*) | Ez dago eskuragarri |
| Kultura, kirol eta ikerketako mezenasgoaren igoera (Covid-19aren zioz, 2020ko lehentasunezko jarduerak) | 2.100.000 |
| Bizkaian jarduera, ekonomia, kultura eta aisia dinamizatzen duten jardueren bultzada | Ez dago eskuragarri |
| Bizkaia Gara-ri indarra | 50.000 |
| COVID-19AREN AURKAKO AURREKONTUA, GUZTIRA | 85.497.000 |

(*) Krisiaren lehen astean premiaz hartutako zerga-neurriek Bizkaiko ekonomian 538 milioi euroko likidezia utzi dutela aurreikusten da.

Euskadiko erakunde guztietatik pandemiari eman beharreko berehalako erantzuna.

ARABAKO FORU ALDUNDIAK ONARTUTAKO NEURRIAK

Arabako Foru Aldundiak “A Plana - Arabako Ekonomia Suspertzeko Plana” diseinatu du, talka-plan gisa. Bertan, epe laburreko 50 premiazko neurri ekonomiko sartzen dira, bai eta ekintza ekonomikoak, fiskalak, finantzarioak eta kontsumoa sustatzeko neurriak ere, betiere sektore guztien aliantza eta partaidetzan nahiz zirkuitu laburrean eta tokiko kontsumoan oinarrituta, krisitik irteteko gako nagusi gisa.

18,4 milioi euroko aurrekontu-hornidura eta 29 milioi eurotik gorako eragin ekonomiko aurreikusia dauzka (18,3 zuzenean eta 10,7 zeharka). Zenbateko horri beste 248,5 milioi euro gehitu behar zaizkio, hori sartuko baitu Foru Ogasunak, zerga-neurrien bidez. Neurri horiek honakoak izango dira, besteak beste: enpresen eta familien likidezia bermatzeko zergen ordainketen atzerapenak, zerga-arintzeak edo beste neurri ekonomiko batzuk. Halaber, 60 milioi euro bideratuko ditu obra publikoan inbertitzeko. Guztira, ekonomia arabarrean 308,5 milioi euroko mugimenduak aurreikusi dira.

araba álava
foru aldundia diputación foral

PLANA



Euskadiko erakunde guztietatik
pandemiari eman beharreko
berehalako erantzuna.

araba álava
foru aldundia diputación foral

7. TAULA

A PLANA

ARABA SUSPERTZEKO PLAN EKONOMIKOA

Iturria: Arabako Foru Aldundia

| A PLANA - Neurri espezifikoaren blokeak | AURREKONTUA € | ERAGIN EKONOMIKOA € |
|--|-------------------|------------------------|
| Enpresa txiki eta ertainentzat eta autonomoentzat | 11.475.000 | 11.475.000 |
| Enplegurako | 1.000.000 | 1.000.000 |
| Fiskalitateko susperraldia indartzeko | - | - |
| Etxebizitzak eta horien jasagarritasuna berritzeko (zerga-abantailak) | - | - |
| Elkartasunerako (zerga-tratamenduaren hobekuntza, gizarte, osasun, kultura eta kiroleko mezenasgoa sustatzeko) | - | - |
| Tokioa kontsumitzeko | 718.000 | 1.618.000 |
| Lurraldea ezagutzeko | 1.527.000 | 2.427.000 |
| Produktu arabarrak sustatzeko | 1.665.000 | 10.565.000 |
| Jasagarritasunerako | 1.000.000 | 1.000.000 |
| Sormenerako eta kulturarako | 1.000.000 | 1.000.000 |
| COVID-19AREN AURKAKO NEURRIAK, GUZTIRA | 18.385.000 | 29.085.000 |

Euskadiko erakunde guztietatik pandemiari eman beharreko berehalako erantzuna.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ONARTUTAKO NEURRIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru talka-plan jarri ditu martxan, Covid-19ak ekonomia gipuzkoarrean dituen eragin negatiboak arintzeko: **Suspertze Ekonomiko eta Sozialeko Plana**, **Lehen sektorearen jarduera ekonomikoa mantentzeko Plana**, eta **Gipuzkoan turismoa suspertzeko Plana**.

Lehenik eta behin, **Gipuzkoako Suspertze Ekonomiko eta Sozialeko Planak** hainbat neurri-multzo ditu, **28 milioi eurotan**, Covid-19ak ekonomiaren eta enpresen sarean duen eragina arintzeko eta susperraldirako bitartekoak eta etorkizunerako oinarriak ezartzeko asmoz. Gipuzkoan kalitatezko enplegua sortu eta finkatzeko erronka dauka, eta, horretarako, enpresa-proiektu lehiakorak, eraldatzaileak, eta ekonomikoki, sozialki eta ingurumen-aldetik jasangarriak baliatzen ditu, ongizatea bermatzeko.

Bigarrenik, **Lehen sektorearen jarduera ekonomikoa mantentzeko Planean**, sektore horrek elikagaiak eta funtsezko materialak sortzen dituen, eta lurraldea egituratu eta natura zaintzen duenez, honakoak jaso dira: **Sektore Sarearen birmoldaketa (EGOKITU)**, **sektorearen mantentzea (EUTSI)**, **azpi-sektore kaltetuentzako laguntza (LAGUNDU)** eta **lurralde-orekaren bilaketa (OREKATU)**. **10 milioi euro** bideratu dira lehen sektorerako funtsezko deialdiak mantentzera, eta, azpi-sektore desberdinetan sortutako krisiari aurre egiteko asmoz, funtsezko jarduerak sustatu dira, **5,5 milioi euroren** bidez, krisiak areagotutako lurralde-desorekari aurre egiteko, udalerrri txikietako udalen eta biztanleen funtsezko beharrianak babestuz.

Azkenik, **Gipuzkoan turismoa suspertzeko Planak** **2,4 milioi euro** bideratu ditu Gipuzkoan garrantzia aldetik hirugarren sektore ekonomikoa dena laguntzeko. Sektore horrek, izan ere, 2019an 36.500 pertsonari ematen zien enplegua, eta Gipuzkoako BPGd-n pisu garrantzitsua zuen. Turismoaren sektorea babesteko krisiaren aurkako Plan honek hiru ardatz ditu oinarrian. Horietatik lehenak (**PRES-TATU**) 900.000 euro bideratzen ditu turismo-zerbitzuen sektoreko pertsona autonomoak eta enpresa txikiak babesteko diru-laguntzetarako eta Covid-19ak eragindako gastuei aurre egiteko agente turistikoentzako diru-laguntza izendunetarako. Bigarren ardatzak (**BABESTU**) 400.000 euroko hornidura dauka, enpresa turistikoak babesteko (inguru seguruak sor ditzaten), berpizteko programak egiteko, eta merkatuetan aldaketak deskubritu eta antzemateko ekintzak bideratzeko. Hirugarren ardatzak (**SUSTATU**) turismoa sustatzeko programak jarri nahi ditu martxan, komunikazioa, pizgarriak eta dinamizazioa lantzeko programen bidez, bisitariak erakartzeko. Horretarako, 1.100.000 euroko aurrekontua dauka.

Ondorioz, Covid-19ak eragindako krisiari aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratutako aurrekontua, guztira, **45,9 milioi eurokoa** da.

Hurrengo orrian, Covid-19aren pandemiaren aurkako Talka-planaren 1. fasean zehar Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako planetan jaso diren neurrien laburpena egin dugu.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Lurralde
Antolaketako Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN



Euskadiko erakunde guztietatik pandemiari eman beharreko berehalako erantzuna.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Lurralde
Antolaketako Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN

8. TAULA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ONARTUTAKO PLANETAN JASOTAKO NEURRIEN LABURPENA

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia.

| SUSPERTZE EKONOMIKO ETA SOZIALEKO PLANA | AURREKONTUA € |
|--|-------------------|
| Kalitatezko enpleguaren sorrera eta finkapena | 4.800.000 |
| Enpresak babesteko baliabide ekonomikoak | 2.600.000 |
| Etorkizuneko enpresa-proiektuak finkatzeko laguntza | 14.000.000 |
| Gipuzkoako sektore estrategikoak finkatzeko bultzada | 2.100.000 |
| Tokiko kontsumoa babesteko mekanismoen ezarpena | 3.000.000 |
| Lurraldeko enpresa-garapenerako ekosistemaren zereginaren indartzea | 1.500.000 |
| NEURRIAK, GUZTIRA | 28.000.000 |
| LEHEN SEKTOREAREN JARDUERA EKONOMIKOA MANTENTZEKO PLANA | AURREKONTUA € |
| Agenteekiko sareko lanaren sektorera zuzendutako funtsezko deialdien mantentzea. Hitzarmenak | 10.000.000 |
| 1. ardatza: LAGUNDU | 4.500.000 |
| Covid-19aren eragin zuzena duten azpi-sektoreak suspertzeko Plana | 2.500.000 |
| Laborantza-jarduera berregituratu eta dibertsifikatzeko ekintzak: nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza | 2.000.000 |
| 2. ardatza: OREKATU | 1.000.000 |
| Udalerrri txikietako udalen oinarritzko arreta eta funtzionamendua bermatzeko ekintza | 500.000 |
| Landa-inguruko biztanleen artean gertatzen ari diren isolamendu- eta desberdintasun-egoeren murrizketa | 500.000 |
| NEURRIAK, GUZTIRA | 15.500.000 |
| GIPUZKOAN TURISMOA SUSPERTZEKO PLANA | AURREKONTUA € |
| 1. ardatza: BABESTU | 900.000 |
| Covid-19: turismoaren sektoreko pertsona autonomoak eta enpresa txiki eta ertainak babesteko Programa | 300.000 |
| Turismo-agenteen diru-laguntza izendunen Programa | 600.000 |
| 2. ardatza: PRESTATU | 400.000 |
| Inguru seguruak sortzeko Programa | 100.000 |
| Covid-19 ostean suspertzeko Programa | 200.000 |
| Merkatuan berriz ere aldaketak deskubritu eta antzemateko Programa | 100.000 |
| 3. ardatza: SUSTATU | 1.100.000 |
| “Bertan duzu” Komunikazio Programa | 100.000 |
| Gipuzkoa bisitatzeko pizgarrien Programa | 600.000 |
| “Gipuzkoa 2021 hedatzen” Dinamizazio Programa | 100.000 |
| Gipuzkoako Turismo Bulegoa lurraldea dinamizatzeko ardatz egituratzaile gisa kokatzeko Programa | 300.000 |
| NEURRIAK, GUZTIRA | 2.400.000 |
| 3 PLANEN NEURRIAK, GUZTIRA | 45.900.000 |

1.3.



1.3.

Euskadik jorratu behar dituen 3 trantsizio global handiak barne hartzen dituen horizontea.

Jorratu beharreko 3 trantsizio global handiak barne hartzen dituen horizontea.

Covid-19ak eragindako krisia nazioarteko testuinguruan sortu da, eta, bertan, megajoera batzuk antzematen dira. Megajoera horiek, desagertzetik urrun, geroz eta nabarmenagoak dira, eta erronka eragiten dute maila globalean nahiz gure errealitatean. Hala, Euskadik megajoera horiek trantsizio teknologiko-digital, energetiko-klimatiko eta sanitario-sozialaren hirukotean laburbiltzen ditu, herrien, negozioen, industrien, gizarteen eta pertsonen etorkizuna eraldatzeko gaitasuna dutela kontuan hartuta. Megajoera horiek, era berean, aukera ona izan daitezke enplegua sortzeko, eta, horretarako, prestakuntza egokia duten pertsonak eduki behar ditugu.



Euskadi Digitala

TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO-DIGITALA

Digitalizazioa.

Adimen artifiziala eta Big Data.

Teknologia, herritarren
zerbitzura.

Automatizazioa.

Zibersegurtasuna.

Bidezko ekonomia digital
eta lehiakorraren sustapena.



Euskadi Berdea

TRANTSIZIO ENERGETIKO-KLIMATIKOA

Neutraltasun klimatikoa.

Energia-sistemaren
deskarbonizazioa.

Baliabideen eta energiaren
erabilera efizientea –ekonomia
zirkularra–

Mugikortasun jasangarria eta
adimenduna.

Bidezko trantsizio energetikoa.

From farm to fork.



Euskadi Inklusiboa

TRANSICIÓN SOCIAL Y SANITARIA

Osasun-sistema eta arrisku
pandemikoak.

Demografia eta zahartze
osasuntsua.

Migrazioa.

Genero-berdintasuna.

Zainketa-eredu berriak.

Gizarte- eta lurralde-kohesioa.

Trantsizio teknologiko-digitala



Iraultza teknologiko-digitalak sektore industrialei eragingo die. Sektore horietako batzuk gakoak dira Euskadiren errealitate ekonomikoan, besteak beste garraioarekin lotutakoak (zehazki, automobilgintza, aeronautika, tren eta ontzigintza), ekipa-ondasunekin lotutakoak eta makina-tresnekin edo siderometarlurgiarekin lotutakoak. Sektore horiek trantsizio-prozesuan daude antolaketa-metodo tradizionalen eta digitalizazioan oinarritutako antolaketa-artearen artean. Hala, aurrerantz egiten ari dira beren prozesuak automatizatu eta hobetzeko orduan, eta, horretarako, irtenbide malguak eta robotizazioan, fabrikazio gehigarrian eta konektibitatean oinarritutako teknologiak sartzen dituzte makinen eta ekipoen artean, adimen artifiziala eta Big Data bezalako teknologiak aplikatzeko.

Trantsizio teknologiko-digitala jorrazteko, beharrezkoa izango da ikerkuntzaren alde egitea, honako helburu hauek lortzeko: ekoizpen-inguruneetan eta -sistemetan adimena sartzea; gaitasunak eta sortzen ari diren teknologiak produktu berrietan eta prozesuetan aprobetxatzea; balio erantsi handiagoko soluzioetan edo prozesu hobetuetan material aurreratuak sartzea; erabilitako baliabideen efizientzia eta jasangarritasuna bermatzea; eta balio erantsi handiko zerbitzuak txertatzea. Apustu hori, Euskadi mailan, “Basque Industry 4.0” estrategia-aren bidez gauzatzen ari da.


Megajoera honekin lotutako beste erronka bat talentu teknologiko-digitala da, hau da, enpresa-sa-

reak elikatuko dituzten espezialista digitalek nahiz agente zientifiko-teknologikoek osatzen dutena.

Hala, Euskadik trantsizio teknologiko-digitala egiteko erronka bereganatzen du, honako gako hauen arabera: konektibitate handiagoa eta hobea lortzeko inbertsioak egitea; industriaren eta teknologiaren presentzia indartzea hornidura-kateko puntu estrategikoetan; inbertsioa gaitasun digital estrategikoetara bideratzea (adimen artifiziala, zibersegurtasuna, komunikazio segurua, hodeiko datuen azpiegitura, 5G eta 6G sareak, superrordenagailua, informatika kuantikoa, blokeen katea...); datuen ekonomia erreala eraikitzea, berrikuntzarako eta enplegua sortzeko motor gisa; eta enpresa-inguru bidezkoagoa eta sinpleagoa bermatzea. Elementu horiek guztiek, era berean, ikuspegi europarrarekin bat egiten dute.



Trantsizio energetiko-klimatiko



Erregai fosiletan oinarritutako garraio- eta ekoizpen-eredua da gizartean orokortuta dagona, eta horrek ingurumenean eta gizartean arazoak sortzen ditu. Arazo horiek eta klima-aldaketak eragindako kezka inguruan pizten da, hain zuzen ere, trantsizio energetiko-klimatiko. Eredu horrek hainbat eragozpen ditu, besteak beste airearen kutsadura, energiaren gehiegizko kontsumoa, osasunaren gaineko ondorioak edo zirkulazio-bideen saturazioa. Hori dela eta, ondorio horiek arintzen eta karbonoan neutroa den euskal ekonomiaren etorkizuna josten lagunduko duten aukerak bilatzen ari dira hainbat eta hainbat kolektibo.

Nazioartean, Euskadi energiaren eta mugikortasun garbiaren eremuan ezagutzarako eta garapen industrialerako gunea da, eta, bertan, nazioarteko merkatuetan liderrak diren hainbat enpresa eragile garrantzitsu daude, bai eta berrikuntza-profil altua duten enpresa txiki eta ertainen talde handi bat ere.

Gainera, ingurumenaren jasangarritasunean eta karbono-isuri baxuko euskal ekonomiaren aldeko trantsizioan aurrera egiteko apustua egiten dute erakundeek, eta, horretarako, eraginkortasun energetikoa, ekonomia zirkularra, materialen erabilera eraginkorra, eta ekoberrikuntza sustatzen dituzte modu integralean beren sektore-estrategia eta -planetan. Halaber, lurraldeak Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat egiteko erronka ere badu. Ondorioz, lurralde-ikuspegian oinarrituta,

giza garapen jasangarriaren erronka globalerako irtenbideak aurkitzen laguntzen ari da.

Euskadiko trantsizio energetiko-klimatiko, era berean, bat dator Europako Itun Berdearekin. Azken horrek hazkunde eta trantsiziorako estrategia berri bat planteatzen du, gizarte ekitatibo eta oparoa lortzeko, ekonomia modernoa, baliabideen erabileran eraginkorra eta lehiakorra duena. Gizarte horretan, ez da negutegi-efektuko gasen isuri garbirik egongo 2050ean, eta hazkunde ekonomikoa baliabideen erabileratik bereizita egongo da. Horretarako, Euskadik hainbat ekintza zehatz garatu nahi ditu, Europako Itun Berdeko ibilbide-orrian aurreikusitako ekimen nagusietako batzuekin bat (Biodibertsitatearen Estrategia 2030, Baserritik Mahairako Estrategia, Europa Ekologiko, Digital eta Lehiakorrerako Industria Estrategia, Europako Klima Legearen proposamen berria, eraikin publiko eta pribatuak “Berritzeko Olatua”, eta Mugikortasun jasangarri eta adimendunerako estrategia).

Trantsizio sanitario-soziala



Euskadiko biztanleriak bere gorenune historikoa lortu zuen 2019an, 2.188.017 biztanlerekin, berau izanik bizi-esperantza handiena duen gizarteetako bat (86,3 urte emakumeen artean eta 80,4 urte gizonen artean). Ondorioz, egitura demografikoan 65 urtetik gorako pertsonak (% 22,2) gehiago dira 21 urtetik beherakoak baino (% 18,4), eta joera hori areagotzen ari da urtez urte.

Biztanleriaren zahartzea erronka handia da, eta, era berean, aukera handia. Zahartze osasuntsua, hots, pertsona nagusiei gizartearen modu aktiboan parte hartzeko aukera ematen dieten osasun fisiko, mental eta sozialen aukerak hobetzeko prozesua, hainbat eremurekin lotuta dago: Osasun Pertsonalizatua, Elikadura Osasuntsua eta Zaintza Jasangarriak. “Osasunerako Berrikuntza eta Ikerketako Euskal Estrategia” delakoak osasun-sistemaren, enpresa-sistemaren eta sistema zientifiko-teknologikoaren arteko lankidetzaren sustatuko du, erronka horri erantzuteko asmoz.

Prozesu horrek, Euskadin bereziki bizia denak, agerian uzten du egungo zaintza-ereduaren krisia. Krisi hori, gainera, areagotu egin da COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz. Gizartearen eta osasunaren ikuspegitik birplanteatzen bada ereduak, sistemen artean sinergiak ezarri eta genero-ikuspegia nahiz berrikuntza txertatuz, eremu garrantzitsua sor daiteke enplegua sortzeko, bai arreta zuzenean, bai arreta pertsonala osatuko duten tresna teknologikoen garapenean.

Ikerketa eta berrikuntzaren ziozko azken aurrerapen teknologiko eta medikoak sartzeko gaitasuna duen osasun-sistema da Euskadikoa. Hala, pazienteari emandako arreta hobetzen da, bai eta osasun- eta laguntza-zerbitzuen kudeaketa ere, Covid-19aren krisian frogatu den bezala. Gure osasun-sistemak bizi-esperantza luzatzen lagundu du. Etorkizunera begira, plataforma elkarrengile irekien bidez eskuragarri dauden datu klinikoaren kopuru handiak eta adimen artifizialean, edizio genetikoan edo Big Data egondako aurrerapen berriek aukera emanago dute, aurreikuspenen arabera, diagnostiko eta tratamendu oso pertsonalizatuak eskaintzeko, eta, hala, egungo gaixotasunetako asko hobetzeko, osasunaren prebentzio eta hobekuntza integratuz aurrera egiteko (gailu konektatu berrien bidez) eta zahartzaroa atzeratzeko.


Horrekin lotuta, eta aurrerapen teknologiko eta mediko horien gaitasuna ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatuz, Euskadiko trantsizio sanitarioak Euskal Osasun Sistemaren ahalegin eta eraldaketa garrantzitsua behar ditu, gerta daitezkeen osasun-krisi edo pandemia berriei erantzun azkarra eta eraginkorra emateko prestatuta egoteko eta prebentzioa lantzeko asmoz.



Euskadiren abiapuntu positiboa.

Krisi ekonomiko eta sozial honen aurrean, Euskadik Europako beste eskualde askok baino abiapuntu hobea du, bere indarguneei esker:






Ekonomia Ituna eta autogobernu-gaitasuna.

Ekonomia Ituna da EAEko lurraldeek Estatuarekin harreman ekonomiko eta finantzarioa ezartzeko erabili izan duten oinarria. Balio, sakontasun eta irismen bereziko ituna da, eta, horren arabera, lurralde historikoei gaitasun osoa aitortzen zaie beren zerga-araubide propioa ezarri eta arautzeko. Horrek guztiak agerian uzten du euskal erakundeen eta gizartearen autoantolaketarako gaitasuna, bai eta autogobernurako dugun asmo eta bokazioa ere.

Sistema horrek zerga-erantzukizuna eta aurrekontu-diziplina sustatzen ditu, gobernatza instituzionalean eraginkortasun handiagoa lortzeko, eta lau zutabetan oinarritzen da: ituna, legezketasuna, elkartasuna, eta alde bikotasuna.



Esperientzia aurreko krisiak gainditzen.

Euskadik eragin txikiagoa jasan zuen 2009ko krisi ekonomiko-finantzarioan, eta susperraldia azkarragoa eta biziagoa izan da, epe ertain eta laburrean ekonomia-aren hazkundean eragiteko gaitasuna duten faktore diferentzialei esker. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoari aukera eman zion estatuko batez bestekotik aldentzeko, modu positiboan, eta krisia gainditzeko, BPGd-ren eta enpleguaren arloan eragin global txikiagoa izanik. Ikaskuntza hori Covid-19aren pandemiak eragindako krisian ere aplikatu daiteke.



Ekonomia saneatua eta zorpetze publikoa baxua.

2019an zor publikoa 8.645 M €-koa izan zen (*), hots, BPGd-ren % 12,6ren parekoa, eta, beraz, Euskadi Estatu-mailan zorpetze baxuena izan zuen erkidegoa izan zen. Gainera, oreka-egoera eta are aurrekontu-superabit txiki bat gertatzen ari zen Covid-19aren krisiak eztanda egin baino lehen, eta, horri esker, zergak finkatzeko eta aurrekontua egoerara egokitzeko estrategia bat ari zen garatzen, aurreko krisiaren urteetan zehar eragindako ondorioak arintzeko. Orain, Euskadik marjina gehiago dauka zorpetze-maila altuagoak bereganatzeko, eta, hala, Covid-19aren krisiak eragindako zerga-bilketaren erorketa konpentsatu ahal izateko.

(*) Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila. Eusko Jaurlaritza.


(**) Iturria: "ZTBP EUSKADI 2020" Eusko Jaurlaritza



Erakundeen egonkortasuna eta aurrekontu-egoeren bermea.

«Erakundeen egonkortasuna» da hazkunde ekonomikoa sustatzeko eta kalitatezko enplegua sortzen laguntzeko oinarrietako bat. Erakundeen egonkortasuna, Euskadin, alde desberdinen artean itunak lortzeko dagoen gaitasunak zehaztu du. Horri esker, alderdien konbinazio desberdinetan babestutako gobernuak osatu ahal izan dira, euskal erakunde gehienetan.

Gaur, Enplegua eta ekonomia suspertzeko Programa honetan aurreikusitako aurrekontu-egoerak onartzen direla bermatzeko gehiengo parlamentario nahikoa duen gobernu bat dugu.



Industria indartsua, nazioartekotua, antolaketa- eta teknologia-aktibo onak dituen, bai eta ondo prestatutako pertsonak ere.

Industria indartsua da Euskadiko ekonomiaren bereizgarri. Zehazki, manufaktura-industriak (Euskadiko industria-jarduera osoaren % 86) euskal BPGd-ren % 21 sortu zuen 2018an, eta ia % 19 mugitu zuen enplegua Euskadin 2017an.

Indargune moduan, nazioartekotasuna nabarmendu daiteke. Izan ere, 2019an euskal industriak bilakaera positiboa jasan zuen bere esportazioetan, eta, beraz, enpresa bakoitzeko esportazioen batez besteko balioa eta ohiko esportatzaileen ehunekoa igo egin dira (nahiz eta enpresa esportatzaileen zenbatekoa guztira murriztu egin den). Erronka nagusi gisa, I+G+b-n aktiboak diren enpresen kopurua eta beren ahalegin erlatiboa areagotu nahi dira, laugarren industria-iraultzaren paradigmen erronkei aurre egiteko.



Enpresari laguntzeko tresnak, bai eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Sare indartsu bat ere.

Euskadik esperientzia handia dauka lurralde- eta sektore-mailako planak eta estrategiak ezartzen, eta, hala, hainbat tresna hedatu ahal izan ditu, lagungarriak direnak enpresetan, hainbat eremutan: enpresen inbertsioa, nazioartekotzea, digitalizazioa, ekintzailtza eta I+G+b. Euskal erakundeek I+G+b-ri ematen dieten babes hori, zehazki, erreferente bat bihurtu da, bai laguntza-programen sistema eraginkorrari esker, sistema horiek oinarrizko ikerketa aplikatutik garapen esperimentalerako eta komertzializaziorako bidean aurrera egiten ari baitira, bai Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareak ordezkatzan duen oinarriari esker, horixe baita Euskadiko I+G+b-ren ekosistemaren oinarri nagusia.



Lankidetza publiko-pribatua eta erakundeen hurbiltasuna.

Euskadin lankidetza publiko-pribatuan oinarritutako ereduaren alde egin da, hainbat eremutan: ekoizpen-inbertsioa, nazioartekotasuna, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako inbertsioa... Izan ere, erakundeen apustuek inbertsio pribatuaren gainean pizgarri-efektua izan behar dutela ulertzen da, funts publikoen osagarritasun hobe lortze aldera.

Lankidetza publiko-pribatua, enpresen lankidetzarako egiturak eta ereduak garatzeko gaitasuna duena, oinarrizko zutabea da Euskadiko industria-lidergotza indartzeko. Hala, helburutzat dauka Euskadiko lehentasun estrategikoei lotutako eremu espezifikoetan proiektuak eta inbertsioak identifikatu eta sustatzeko tresna baliagarria bihurtzea, bai eta esparru europarrean proiektuei dimentsio handiagoa emango dioten ekimenak sustatzea ere.




Euskadirako hobekuntza-eremuak.

Krisiari arrakasta-aukera handiagoekin egiteko aurre, kontuan eduki beharko da, halaber, Euskadik Europarekin alderatuta non dituen ahuleziak.

Orkestrak garatutako lehiakortasun-esparruari jarraikiz, eta azken datu eskuragarriak kontuan hartuta*, Euskadiko hobekuntza-eremu nagusiak, Europarekin alderatuta, honela laburbildu daitezke:

- ENPLEGU-TASA, ETA, BEREZIKI, EMAKUMEEN ENPLEGU-TASA.
- LANGABEZIA-TASA, ETA, BEREZIKI, GAZTEEN LANGABEZIA ETA IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA.
- ENPRESA-DIMENTSIOA, ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK ETA MIKRO ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK GAIENDUTA.
- BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA EZ TEKNOLOGIKOA ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAN.
- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN GARAPEN DIGITALA.
- I+GREN GAINEKO INBERTSIOAK, ETA, BEREZIKI, ENPRESEN INBERTSIO PRIBATUAK.
- NAZIOARTEKO PATENTEEN ESKARIAK.
- ARGITALPEN ZIENTIFIKOAK ENPRESEKIN LANKIDETZAN.
- EMAKUMEAREN PARTAIDETZA ZIENTZIAN, TEKNOLOGIAN ETA BERRIKUNTZAN
- GIZARTEAREN GARAPEN DIGITALA.

(*) Iturria: Bertan egina, Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasun Txostenak (Orkestra), ZITBP 2020ren ebaluazio-txostenak (Innobasque) eta kontsultatutako beste iturri batzuk kontuan hartuta.



3. Ird.: Eskualdeko lehiakortasun-esparrua. Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutua.



**2.
Herri-estrategia
global batean (Giza
garapen jasangarria)
txertatutako programa.**

2.1.



2.1.
**Herri-estrategia
global batean (Giza
Garapen Jasangarria)
txertatutako programa.**

Herri-estrategia global batean (Giza Garapen Jasangarria) txertatutako programa.

Euskadiko hazkunde ekonomiko eta soziala “Giza Garapen Jasangarriaren” eredian oinarritzen da. Horretarako, lurralde-lehiakortasun handiagoa behar da, enpresen garapena eta bideragarritasuna sustatzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko gai dena, pertsona guztiei funtsezko zerbitzuak bermatzeko eta beren bizi-kalitatea areagotzeko.

Testuinguru horretan, Euskadiren erronka da “Giza Garapen Jasangarriaren” zerbitzura jartzea politika publikoetan duen ezagutza eta esperientzia guztia, bai eta lurraldean garatutako jardunbide onak eta irtenbide tekniko, zientifiko eta sozialak ere.


“Giza Garapen Jasangarriak” Euskadiren garapean lankidetzat sustatzen du, eta, horretarako, apustu irmoa egiten jarraitu behar da giza eskubi-deen alde, eta jarduera bakoitzari Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030eko Agendan oinarritutako ikuspegia eman behar zaio. Ekintza-plana unibertsal, integral eta eraldatzaile honen

helburua, izan ere, giza garapena sustatzea da, jasangarritasunez, gizartean, ekonomian nahiz ingurumenean.

Euskadi Basque Country 2030 Agenda, “Giza Garapen Jasangarriaren” Euskadirako erreferentzia-estrategia dena, Garapen Jasangarriaren hiru dimentsioak (gizartea, ekonomia eta ingurumena) jorratzen dituen estrategia integratzailea da, eta politika publikoen eremu guztietan aritzen da. Par-taideia da, eta Garapen Jasangarrirako Helburuetan eragina duten jarduera-arloetako agente publiko eta pribatu guztiak barne hartzen ditu.

“Giza Garapen Jasangarriaren” euskal ikuspegia bi dimentsiotan burutzen da: “Hazkunde Jasangarria”, bertan sartzen direlarik hazkundearekin, ekonomia suspertzearekin, jasangarritasunarekin eta kalitatezko enpleguaren sorrerarekin lotutako eremuak; eta “Giza Garapena”, zeinak bereziki lantzen baititu osasunarekin, hezkuntzarekin, kulturarekin eta gizarte-politikekin lotutako eremuak, hau da, azken finean, pertsonen bizi-kalitatea.

4. Ird.: Herri-estrategia globala. Giza Garapen Jasangarriaren dimentsioak.



2.2.



2.2.

**Euskal erakundeen
arteon partekatutako
programa globala.**

Euskal erakundeen artean partekatutako erantzun globala.

Une honetan, erakundeen arteko lankidetzaz eta koordinazioa inoiz baino garrantzitsuagoak dira Covid-19aren pandemiaren ondorioek eragin duten egoera konplexu eta zailari aurre egiteko. Izan ere, larrialdi-egoera sortu da osasunean, enpreetan eta pertsonengan, eta, beraz, arriskuan jarri dira euskal gizartearen ongizatea eta bizi-kalitatea.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek “Ekonomia eta enplegua suspertzearen aldeko konpromisoaren” oinarriak ezarri dituzte, eta, oinarri horiek dira, hain zuzen ere,

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren oinarri komun partekatua osatzen dutenak, krisiari erantzun global eta koordinatu bat eman ahal izateko, honako elementu hauen gainean:

EKONOMIA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEAREN ALDEKO KONPROMISOAREN OINARRIAK



ERANTZUN GLOBALA, ENPLEGUA LEHENETSITAKO DUENA

3 TRANTSIZIO GLOBALI AURRE EGITEKO ERALDAKETA-PALANKA

SUSPERRALDI EKONOMIKO ETA SOZIALERAKO KONPROMISOA, HERRI-ESTRATEGIAN TXERTATUA

“NEXT GENERATION EU” ERREKUPERAZIO FUNTS EUROPARRAREKIN BAT DATORREN KONPROMISOA

ABIAPUNTU SENDOA DUEN KONPROMISOA

BI JARDUERA-ARDATZ HANDI ETA ZEHARKAKO EREMU BAT:

- I. ARDATZA
Ekonomia suspertzea
- II. ARDATZA
Enplegua sortzea
- ÁREA TRANSVERSAL:
Enpleguaren kalitatearen hobekuntza

FINANTZAKETA-ITURRIAK

ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIO-MAHAIAREN SORRERA

EUSKADIKO TOKI-ERAKUNDEETARA IREKITAKO KONPROMISOA

ERAGILE EKONOMIKO ETA SOZIALEI IREKITAKO KONPROMISOA

5. Ird.: Ekonomia eta enplegua suspertzearen aldeko konpromisoaren oinarriak (2020ko irailaren 29a).

Ekonomia eta enplegua suspertzearen aldeko konpromisoa, Lehendakariak dagoeneko iragarri zuena Covid-19aren Mahai Sozioekonomikoak 2020ko maiatzaren 27an egindako bileran:

“Behar dena egingo dugu ahalik eta enplegu gehien mantentzeko eta galdutako enplegu guztia berreskuratuzeko”



**Euskal erakundeen
artean partekatutako
programa globala.**



Berreraikuntza Programa, 3 printzipio nagusitan oinarrituta

Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak oinarritzko 3 printzipio betetzen ditu:

| EKONOMIA ETA GIZARTEA BERRERAIKITZEKO PROGRAMA (2020-2024) | | |
|---|--|---|
| 1 | 2 | 3 |
| EKONOMIA SUSPERTZEKO ETA GALDUTAKO ENPLEGUA BERRESKURATZEKO PROGRAMA | ERAKUNDEEN KOORDINAZIOAN OINARRITUTAKO PROGRAMA, AGENTE SOZIAL ETA EKONOMIKOEI IREKIA | EUROPAREKIN ETA HAZKUNDE JASANGARRIAREKIN BAT EGITEN DUEN PROGRAMA |

6. Ird.: Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren oinarritzko printzipioak.

2.3.



**2.3.
Euskadiko
egitura-erreformen
plan baten parte
den programa.**



Euskadiko egitura-erreformen Plana .

Berreraikuntza-programa Euskadin egingo diren egitura-erreformen plan global baten(*) parte da. Horretarako, gomendio europarrak jarraitzen ditu, euskal ekonomia erresilienteagoa izan dadin eta enpleguaren sorrera eta hazkunde jasangarria sustatu daitezten. Erreforma horiek Euskadiko 3 trantsizio handirekin bat datoz (teknologiko-digitala; energetiko-klimatikoa; eta sozial-sanitarioa), eta lege-proiektu eta plan estrategikoen aurreikuspen batzuetan oinarritzen dira. Hona hemen zein diren proiektu eta aurreikuspen horiek:

| EREMUAK | LEGE-PROIEKTUAK | PLAN ESTRATEGIKOAK (AURREIKUSITAKOAK) |
|-----------------------------------|--|---|
| TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO-DIGITALA | Mugikortasun jasangarriari buruzko Legea (**) Euskal Enplegu Sistemari buruzko Legea | Enplegua Industria eta nazioartekotzea Berrikuntza (ZTBP 2030) Turismoa, Merkataritza, Ostalaritza Berrikuntza Publikoa eta Gobernantza |
| TRANTSIZIO ENERGETIKO-KLIMATIKOA | Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea Ingurumen Administrazioaren Legea Landa Garapenaren Legea Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legea | Trantsizio energetikoa eta klimatikoa Elikadura eta landa-garapena |
| TRANTSIZIO SANITARIOA ETA SOZIALA | Hezkuntza Legea Osasun Publikoaren Legea Gazteriaren Legea Berdintasunerako Legearen aldaketa Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen aldaketa | Hezkuntza Osasuna Gizarte-politikak Genero-berdintasuna Justizia eta Giza Eskubideak |

7. irudia: Euskadirako egitura-erreformen Plana.

(*) Oharra: Erreforma-planean sartzen da, era berean, zerrenda honetan zehazten ez diren sektore-planen aurreikuspen bat ere. Aurreko legegintzaldian onartu ziren lege eta plan estrategikoak ere ez dira zehaztu, egitura-erreformen plan honen parte diren arren (esate baterako, "Estrategia Energetikoa 2030" eta "Ekonomia Zirkularren Estrategia 2030").

(**) Oharra: Mugikortasun Jasangarriari buruzko Legeak ere trantsizio energetiko-klimatikoa eragin garrantzitsua izango du.

2.4.



**2.4.
Nazio Batuen 2030erako
GJHekin bat datorren
programa.**



2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuak direlakoekin bat datorren programa.

2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Batzar Orokorrak aho batez onartu zuen Garapen Jasangarrirako 2030eko Agenda. Bertan, 17 helburu eta 169 xede daude. Ekintza-plan unibertsal, integratzaile eta eraldatzailea da, giza garapen jasangarria sustatzeko asmoz gizartean, ekonomian eta ingurumenaren zaintzan, hurrengo belaunaldiei begira.

Euskadi Basque Country 2030 Agendan txertatutako Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat egiteko konpromisoa du Euskadik. Estrategia honekin gehien lotutako GJHak honako hauek dira:

5. Genero-berdintasuna
6. Ur garbia eta saneamendua
7. Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea
8. Taxuzko lana eta hazkunde ekonomikoa
9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
10. Desberdintasunen murrizketa
11. Hiri eta komunitate jasangarriak
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
13. Klimaren aldeko ekintza

Garapen jasangarrirako helburuetan, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren esparruan, 41 xede, 25 planifikazio-tresna, 10 ekimen legegile, 39 konpromiso, eta 21 adierazlez osatutako aginte-taula sartzen dira.

Gainera, 3 trantsizioekin oso lotuta dauden GJHak dira:

- **TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO-DIGITALA:**
GJH8 eta GJH9
- **TRANTSIZIO ENERGETIKO-KLIMATIKOA:**
GJH6, GJH7, GJH8, GJH11, GJH 12 eta GJH13
- **TRANTSIZIO SOZIAL ETA SANITARIOA:**
GJH8 eta GJH10

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



8. Ird.: Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak.

Nazio Batuen 2030erako GJHein bat datorren programa.



Euskadi Basque 2030 Agenda

Euskadi Basque 2030 Agenda bat dator, era berean, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak zehaztutako eremu edo ardatz nagusiekin.

| | | |
|--|-----------------------------------|--|
|  GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK | Oparotasuna | <ul style="list-style-type: none"> ● ENPLEGUA ● INDUSTRIA ETA NAZIOARTEA ● ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA ● ELIKADURA ETA LANDA-GARAPENA ● MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA TURISMOA |
| | Pertsonak | <ul style="list-style-type: none"> ● HEZKUNTZA ● OSASUNA ● GIZARTE-POLITIKAK ● GENERO-BERDINTASUNA ● KULTURA ETA EUSKARA |
| | Planeta | <ul style="list-style-type: none"> ● AZPIEGITURA EKONOMIKOAK ETA SOZIALAK ● TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA NEUTRALTASUN KLIMATIKOA |
| | Bakea eta Autogobernua | <ul style="list-style-type: none"> ● SEGURTASUNA ● JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK ● AUTOGOBERNUA ETA GOBERNANTZA PUBLIKOA |

9. Ird.: Giza Garapen Jasangarriaren dimentsioak eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako ardatzekiko bateragarritasuna.

2.5.



**2.5.
“Next Generation EU”
tresna europarrarekin
bat datorren programa.**


“Next Generation EU” tresna europarrarekin bat datorren programa.

“Next Generation EU” funts europarrak erreferentzia-esparru globala ezartzen du baliabide eta ahalegin publiko eta pribatuak Europa ekologiko, digital eta erresilientea eraikitzea bideratzeko, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartuko dituen hazkunde jasangarri eta integratzailearen bidez.

Euskadik ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren definiziorako oinarri gisa partekatzen eta bereganatzen ditu orientazio hauek, bere estrategiako ardatzen eta errekupeziotresna europarraren arteko bateratzea ezarriz. Horrenbestez, Ekonomia Suspertzeko Ardatzak

Errekuperazio eta Erresilientzia Mekanismoaren filosofia eta funtsa txertatzen ditu, eta, bestalde, Enplegua Sortzeko Ardatzak gizarte- eta lurralde-kohesiorako REACT-EU Programaren dimentsio handiak jorratzen ditu.

NEXT GENERATION EU”REKIN BAT DATORREN PROGRAMA



10. Ird.: “Next Generation EU”rekin bat datorren programa.

NEXT GENERATION EU, EUROPA SUSPERTZEKO TRESNA BERRIA

Europako Batzordeak iragan maiatzaren 27an aurkeztu zuen bere proposamena, errekupeziarako tresna edo funts berri bat sortzeko: “Next Generation EU”. 2021-2024 aldirako funtsa da, eta 750.000 milioi euroko hornidura dauka. Hala, errekupeziario jasangarria, ekitatiboa, inklusiboa eta bidezkoa bermatu nahi da estatu-kide guztietan.

“Next Generation EU” tresnak 3 zutabe ditu oinarrian, Europa ekologiko, digital eta erresilientean inbertitzeko helburu komuna betetzeko.

Lehen zutabeak (Estatu-kideak babestea susperraldian) aurreikusitako finantzaketaren % 87 batzen du, hau da, 655.000 milioi euro. Estatu-kideen inbertsioak eta erreformak jorratzen ditu, Batzordeko gomendioei eta politikei jarraikiz. Hainbat tresnaren bidez antolatzen da. Tartean, nabarmentzekoa da Errekuperazio eta Erresilientzia



“Next Generation EU” tresna europarrarekin bat datorren programa.

Mekanismo berri bat, 560.000 milioi eurokoa, trantsizio ekologiko eta digitalekin lotutako inbertsioak eta erreformak babesteko, eta nazioko ekonomien erresilientzia babesteko, lehentasun europarrekin lotuta. Era berean, osagarri bat diseinatu da kohesio-politikaren egungo programetarako, “REACT UE”; eta ahalegin ekonomikoa egiten ari da Bidezko Trantsizio Funtserako eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtserako.

Bigarren zutabeak (Ekonomia berrabiaraztea eta inbertsio pribatua piztea) 56.300 milioi euro dauzka, hau da, zenbateko osoaren artean % 7,5, eta sektore pribatuan inbertsioa sustatzea du helburu. Aurreikusitako funtsak Inbertsioen Banku Europarraren bidez kudeatuko dira, eta kaudimena babesteko tresna berriaren eta inbertsio estrategikoen beste tresna berri baten bidez antolatuko dira; halaber, “InvestEU” inbertsio-programa europarraren hornidura areagotuko da.

Bestalde, hirugarren zutabeak (Krisitik ikaskuntzak ateratzea) 38.700 milioi euroko hornidura dauka (zenbateko osoaren % 5), krisiaren ikaskuntzetan oinarritutako inbertsioak babesteko. Martxan jartzeko tresnen barruan sartzen dira honako hauek: osasun-programa berri bat, “EU-4Health”, osasun-segurtasuna indartzeko; babes zibil europarrerako mekanismoaren bultzada, “rescEU”; “Horizonte Europa” programaren osagarri bat, osasunaren, erresilientziaren eta trantsizio ekologiko eta digitalen eremuetan bizi-ikerketak indartzeko; eta Europako bazkide mundialen babesa, kanpo-ekintzarako

EUROPA EKOLOGIKO, DIGITAL ETA ERRESILIENTE BATEAN INBERTITU



11. irudia: “Next Generation EU” Europako Funtsa.
Iturria: Europako Batzordea.

“Next Generation EU” tresna europarrarekin bat datorren programa.

Lehen zutabearen (Estatu-kideak babestea beren susperraldian) Espainiak 140.340 milioi euroko aurre-esleipena aurreikusten du (77.218 milioi

diru-laguntzetan eta 63.122 milioi maileguetan), honako banaketa honen arabera:

1. ARDATZA - BABESA ESTATU-KIDEEI 140.340 M€ (ESPAINIA)

ERREKUPERAZIO ETA ERRESILIENTZIA MEKANISMOA: 124.740 M€
(61.618 DIRU-LAGUNTZETAN ETA 63.122 MAILEGUETAN)

REACT-UE: 13.000 M€
(DIRU-LAGUNTZAK)

BIDEZKO TRANTSIZIO FUNTSA:
1.300 M€ (DIRU-LAGUNTZAK)

**LANDA GARAPENERAKO EUROPAKO
NEKAZARITZA FUNTSA:**
1.300 M€ (DIRU-LAGUNTZAK)

12. Ird.: “Next Generation EU” Funtz Europarraren 1. zutabea.

Tresna desberdinen bidez, erantzuna eman nahi zaie ekonomia suspertzeko beharrei, inbertsio eta erreforma publiko eta pribatuak babestu nahi dira ekonomiak erresilienteagoak egiteko, eta estatu-kideen hazkunde jasagarria sustatu nahi da.

Finantzaaketak lehentasuna emango die krisiak gehien eragin dituen edo/eta esanguratsuenak diren sektoreei, susperraldi solido baterako oinarriak sortzeko. Horretarako, inbertsioak egin behar dira, besteak beste honako helburu hauek lortzeko: enplegua mantentzeko eta sortzeko eta gazte-enplegua indartzeko neurriak babestea; osasun-laguntzako sistemak indartzea; kapital

zirkulatuzailea erraztea eta enpresa txiki eta ertaintararako inbertsioa babestea; turismoa eta kultura berreskuratzea; eta Itun Berde Europarraren eta trantsizio digitalaren gainean inbertitzea.

Laburbilduz, “Next Generation Europe”k eszenatoki berri bat sortu du, eta azken hori kontuan hartu behar da erreferentzia moduan, autonomia-erkidegoek garatu nahi dituzten estrategiak, programak eta neurriak definitu eta planteatzeko orduan. Euskadik, bestalde, eta hurrengo orrian islatzen den bezala, Ekonomia eta enplegua sustatzeko bere Programaren diseinuan txertatu du plangintza hori.

3.



3. Hazkunde jasangarrirako eta enplegurako Programa. Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa 2020-2024.

3.1.



3.1.
Programaren
helburu nagusiak.



Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko programa, helburu zehatzekin.

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak helburu zehatzak planteatzen ditu, Euskadiko enpleguarekin, susperraldi ekonomikoarekin eta erresilientziarekin lotuta, eta "Next Generation EU" Funtzaren esparruan egindako gomendio europarrekin bat. Hauek dira, zehatz-mehatz, helburuak:

1 Kalitatezko enplegua sustatzea

kontratazioa indartzeko, lan-kualifikazioa bultzatzeko eta enpleguaren kalitatea hobetzeko neurrien bidez, langabezia % 10etik behera egon dadin.

2 Gazteen enplegua sustatzea

lehen lan-esperientzia bultzatzeko eta 30.000 gazte hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programen bidez.

3 Enplegua prestatzea 3 trantsizio globaletarako:

Teknologiko-digitala; energetiko-klimatika eta sanitario-soziala, 45 urtetik gorakoei arreta berezia emateko eta lan-prestakuntza eguneratzeko programekin.

4 Inbertsioak eta erreformak babestea

euskal ekonomia erresilienteagoa egiteko eta hazkunde jasangarria bultzatzeko.

5 Ekonomiari eustea eta susperraldi ekonomikoa babestea

koronabirusaren pandemiak gehien eragindako sektore eta jardueretan. Euskal enpresa txiki eta ertainei eta langile autonomoei likidezia ematea.

6 Elikadura jasangarria eta osasuntsua garatzea

elikagaien segurtasuna bermatuz eta tokiko elikagaien ekoizpena sustatuz, "Baserritik mahaira" estrategia europarraren arabera eta garapen teknologiko aurreratuetan oinarrituta.

7 Euskal ekosistema industrialak indartzea

Europako ekosistema industrialetan eta balio-kateetan integratutako.

8 Azpiegitura publikoetan inbertitzeko proiektuak bizkortzea eta inbertsio pribatua sustatzea

Zerga-politika zuhurrak aplikatzea eta zorraren jasangarritasuna bermatzea, eta horrekin batera, inbertsioa sustatzea.

9 Energia- eta ingurumen-trantsizio zuzena sustatzea

bai eta trantsizio teknologikoa eta digitala ere, I+G+b-ko inbertsioa indartuz.

10 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea

soldata-arrakala murrizteko programekin eta genero-ikuspegia aurreko neurri eta programa guztietan sartuta.

3.2.



**3.2.
Bi jarduera-ardatz
handi eta zeharkako
eremu bat.**



Jarduera-ardatz bertikalak: Ekonomia suspertzea eta enplegua sortzea.

Ekonomia eta enplegua suspertzeko erronka nagusiei erantzun integrala emateko helburua dauka programa honek, behin-behineko jarduera-esparru batean. Bertan, epe laburrean lan-merkatua eta ekonomia uzkurto egingo direla aurreikusten da, eta, ondoren, epe ertainean, jarduera sozioekonomikoaren sorrera suspertu eta hazi egingo litzateke.

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa bi ardatz nagusitan egituratzen da, “Ekonomia Suspertzea” eta “Enplegua sortzea”, eta, horiek, era berean, 12 politikatan eta 60 jarduera-lerrotan hedatzen dira. Horiek guztiek enplegua eta ekonomia suspertu eta berreskuratzeko neurri eta tresna desberdinen erreferentzia-esparrua osatzen dute, Programaren irismen-aldian zehar garatzeko. Era berean, hirugarren ardatza edo zeharkako eremua zehaztu da, enpleguaren kalitatearen hobekuntzari eta genero-berdintasunari buruzkoa. Berau da, hain zuzen ere, Programa honen hamahirugarren politika.

Aurreko 12 politiketan eta 60 jarduera-lerroetan, programa eta neurri guztietan genero-ikuspegia sartuko da. Hartara, emakumeen eta gizonen abiapuntuko egoera eta beharrian desberdinak kon-tuan hartuko dira.

Horrez gain, garrantzitsua da enpleguaren errealitate berriekin lotutako beste dimentsio batzuetan aurrera egiten jarraitzea, besteak beste profil eta errealitate profesional eta pertsonal berrien eskarian, ikaskuntza-behar jasangarri handiak dituzten ibilbide profesionaletan, enplegua eskuratzeko aukera-berdintasunean, soldata-arrakalaren erronkan edo kontziliazio erantzukidean. Hori guztia, zaugarritasun-egoeran dauden pertsonen eta gazteen nahiz lan-merkatura sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen kolektiboari bereziki erreparatuta.

I. ARDATZA EKONOMIA SUSPERTZEA

1. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialen gaineko inbertsioa.
2. Ikerketa, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala.
3. Energia- eta ingurumen-trantsizioa.
4. Industria eta ETEak, Zerbitzu Aurreratuak, Sormen Industriak eta Nazioartekotzea.
5. Elikagaigintza.
6. Merkataritza eta Turismo eta Kultura Industria.

II. ARDATZA ENPLEGUA SORTZEA

7. Ekintzailletza. Enpresa berriak.
8. Enplegurako prestakuntza.
9. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak.
10. Renove programak. Eraikuntzaren birgaikuntza.
11. Enplegu publikoaren eskaintzak.
12. Gazteen enplegua sustatzeko Talka-plana.

III. ARDATZA ZEHARKAKO EREMUA. ENPLEGUAREN KALITATEAREN HOBKUNTZA ETA GENERO BERDINTASUNA

13. Enpleguaren kalitatearen hobekuntza eta genero-berdintasuna.

Zeharkako eremua: Enpleguaren kalitatearen hobekuntza eta genero- berdintasuna.

Ekonomia eta enplegua suspertzeko ardatzek konpromiso inplizitua dakarte Euskadiko erakunde guztien artean, galdutako enplegua berreskuratzeko, dagoena finkatzeko eta haren kalitatea hobetzeko.

Horrekin lotuta, enpleguaren kalitatea eta genero-berdintasuna oraindik ere lehentasunak dira, eta beraz, Programan zeharkako eremu gisa sartzen dira, ikuspegi integralarekin. Halaxe jasotzen da “Enpleguaren kalitatearen hobekuntza eta genero-berdintasuna” mintzagai duen 13. politikan. Ikuspegi hori islatuta geratzen da hainbat eremutan, besteak beste lan-baldintzen hobekuntzan, ikuskapen- eta kontrol-lanen indartzean, prestakuntzaren eta birkualifikazioaren sustapenean, agente ekonomiko eta sozialen arteko elkarrizketa eta negoziazio etengabea, eta enplegu-politika aktibo eta pasiboen unitatean (eraginkortasuna hobetzea xede). Eta, hori guztia, genero-ikuspegia sartuta beti.

Lan-baldintzen hobekuntza enplegu-politikekin eta ekonomia suspertzeko politikekin lotuta dago. Izan ere, kalitatezko enpleguarekin batera hazkunde ekonomiko sendoa lortzen da, eta hazkunde ekonomikoak, era berean, enpleguaren kalitatea hobetzea dakar. Lan-baldintzen artean sartzen dira, besteak beste, egonkortasun handiagoa, lanaldien partzialtasun txikiagoa, kontratuen behin-behinekotasun baxuagoa, soldata-arrakala posiblearen kontrola, eta familiaren erantzukidetasuna lortzeko inguru positiboaren sorrera, lana eta familiak uztartzeko neurriak sustatuz.

Horrez gain, lan-baldintzak zuzen aplikatzen direla, lan-iruzurra kontrolatzen dela, ikuskapenak indartzen direla eta laneko segurtasuna eta prebentzioa areagotzen direla zaindu behar da.

Halaber, prestakuntzak zeregin garrantzitsua dauka enpleguaren kalitatean eta enpresen lehiakortasunean. Egungo testuinguru sozioekonomikoan nabarmenak dira trantsizio teknologiko eta digitalaren zioz gertatzen diren aldaketa azkarrak, eta, ondorioz, profil eta eskumen berriak sortzen dira, eta horiei erantzuteko gaitasun egokiak behar dira. Horrekin lotuta, prestakuntza eta birkualifikazioa tresna estrategikoak dira langileen profilak egokitzeko, beren garapen profesionala hobetu eta enpresen lehiakortasuna indartu ahala.

Enpleguaren kalitatea lotuta dago elkarrizketarekin eta partaidetzarekin, ez soilik langileen aldetik, baizik eta baita agente ekonomiko eta sozialen aldetik ere. Enpresen ikuspegitik, langileek enpresetan duten partaidetza sustatuz gero, errazagoa da lan-eredu berri inklusiboagoak garatzea, enpleguaren kalitatea, laneko egonkortasuna eta enpresen lehiakortasuna sustatuko dutenak.

Bestalde, agente ekonomiko eta sozialen arteko elkarrizketa eta negoziazio etengabea sustatzea gakoa da lankidetzan eta koordinazioan oinarritutako enplegu-politika publikoaren ikuspegitik. Bereziki garrantzitsua da Lan Harremanen Euskal Sistema indartzea eta Lan Harremanen Kontseilua eta Elkarrizketa Sozialaren Mahaia sendotzea. Erakunde horiekin lankidetzan aritzeak modu erabakigarrian laguntzen du lan-baldintzak kontrolatu eta ikuskatzen eta enpleguaren kalitatea hobetzen, soldata-arrakala murrizteko arreta berezia jarrita.



Zeharkako eremua: Enpleguaren kalitatearen hobekuntza eta genero-berdintasuna.

Azkenik, beharrezkoa da enplegu-politika aktiboak kudeatzeko eta lan-bitartekaritzan aritzeko eginkizunak langabeziaren aurrean ekonomikoki babestuko gaituen sistemaren kudeaketarekin osatzea, eta, horretarako, jarduera-unitate bat sortu eta haren eraginkortasuna hobetzea.

ZEHARKAKO EREMUA: ENPLEGUAREN KALITATEAREN HOBEKUNTZA ETA GENERO-BERDINTASUNA

- Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala murriztea
- Prekaritatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak)
- Prebentzioa eta lan-segurtasuna areagotzea
- Lan-ikuskaritza indartzea
- Erantzukidetasuna eta lanaren eta familiaren kontziliazioa sustatzea
- Enpresa-eredu inklusiboagoak eta partaideagoak lortzeko aurrera egitea
- Elkarrizketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa bultzatzea

15. Ird.: Zeharkako eremua: enpleguaren kalitatearen hobekuntza.

3.3.




3.3.
**Aurrekontu-egoeren
eta enplegu sustatuen
laburpena.**




Guztira 13.250 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa.

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak 13.250 milioi euroko(*) aurrekontu-inbertsio baliotsia dauka 2020-2024 aldirako. Zenbateko horretatik 9.550 milioi euroko aurrekontua dago ekonomia suspertu eta enplegua sortzeko bi ardatz nagusietarako, eta 3.700 milioi euro gehitu dira enpresentzako eta pertsona autonomoentzako abalen kontzeptuan.

Aurrekontuan, guztira, 7.935 milioi euro dira ekonomia suspertzeko ardatzerako eta 1.615 milioi euro enplegua sortzeko ardatzerako.



16. Ird.: Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa.



17. irudia: Baliabide ekonomikoak eta finantzaketa.

(*) Oharra: 2020-2024 legegintzaldirako inbertsio-datuak, legegintzaldia hasi zenetik. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren % 50 kalkulatu da.

1.615 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa 130.000 enplegu suspertzeko.

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak 2020-2024 aldirako 1.615 milioi euroko aurrekontu balioetsia dauka Enplegua Sortzeko II. ardatzeko programa eta neurrietarako(*). Inbertsio-ahalegin horrek, aurreikuspen arabera, eragina izango du Euskadiko ekonomian: 130.520 enplegu sustatu(), honako banakapen honen arabera.**

| 130.520 LANPOSTU SUSTATU BERRI | |
|---|---|
| <p>26.110 pertsona, kontratuak egiteko pizgarrien bidez kontrataturik</p> | <p>15.000 lanpostu, etxebizitzak eta tresneria publikoa birgaitzeko Renove programetarako babes publikoarekin lotuta</p> |
| <p>10.790 enplegu, enpresa berriak sortzeko babesaren zioz sortuta</p> | <p>10.720 lanpostu Enplegu Publikoaren Eskaintzetan</p> |
| <p>42.100 pertsonek eskuratuko dute lana enplegurako prestakuntzaren eta lanerako orientazio eta laguntzarako ekintzen bidez</p> | |
| <p>25.800 pertsona gaztek edukiko dute lehen lan-esperientzia jasotzeko aukera</p> | |

18. Ird.: Enplegu sustatuak.

(*) Oharra: 2020-2024 legegintzaldirako inbertsio eta enpleguari buruzko datuak, legegintzaldia hasi zenetik. Enplegua sortzeko, hasierako balioespenen % 30a hartu da 2020an eta % 70a 2021ean, pandemiaren eragina deskontatzeko (EPEak salbu, % 100ean). Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren % 50 kalkulatu da.

(**) Ez dira aurreikusi legegintzaldian zehar ekonomiaren bilakaeraren ondorioz egon daitezkeen enplegu-galerak. Enplegu-sorreraren saldo garbiak langabezia-tasa % 10etik behera koka dezala da helburua.



Eragina eta emaitzak enpleguan eta jarduera ekonomikoan.

130.000 enplegu suspertzeaz gain, Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak beste eragin eta emaitza batzuk aurreikusten ditu jarduera ekonomikoan, besteak beste: 6.000 enpresa berriren sorrera (mikroenpresa txiki eta ertainak eta autonomoak barne); 800 I+G+b proiektu berriren sustapena eta finantzaketa; 10.000 enpresa industriali babesa modernizatzeke eta hedatzeko; eta industriaren eta zerbitzu aurreratuen balio erantsiaren hazkundera (4.000 M €), bai eta elikagaigintzarena (100 M €) eta merkataritza, ostalaritza eta turismoaren sektorearena (1.400 M €).



130.520

enplegu sortuta ⁽¹⁾

6.000

enpresa sortu berri ⁽¹⁾

800

I+G+b-ko proiektu europar berri

10.000

industria-enpresa babestuta

4.000 M€

milioi euroko hazkundera industriaren eta zerbitzu aurreratuen balio erantsian ⁽²⁾

100 M€

milioi euroko hazkundera elikagaigintzaren balio erantsian ⁽²⁾

1.400 M€

milioi euroko hazkundera merkataritza, ostalaritza eta turismoaren balio erantsian ⁽²⁾

19. Ird.: Lortu beharreko emaitza nagusiak.

Oharra (1): 2020-2024 legegintzaldirako zenbatetsitako guztizkoak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (2020rako hasierako aurreikuspenen % 30 eta 2021erako hasierako aurreikuspenen % 70 hartuko dira, pandemiak enplegu-sorreran duen eragina kontuan hartzeko). Sortutako enpresa berrietan mikroenpresa txiki eta ertainak eta autonomoak ere sartu dira.

Oharra (2): Balio Erantsi Gordinaren hazkundera, milioi eurotan, merkatuko prezioetan, 2020 eta 2024 artean.

3.4.



3.4.

**Programako ardatz
bertikalen garapena:**

I. ardatza - Ekonomia suspertzea

II. ardatza - Enplegua sortzea

3.4.



3.4.1

I. ARDATZA. Ekonomia Suspertzeko Programa.


I. ARDATZA

Ekonomia suspertzea: 6 politika eta 27 jarduera-lerro.

1. ardatza 6 politika eta 27 jarduera-lerrotan hedatzen da. Hala, Programaren esparruan ekonomia suspertzen lagunduko dute:



20. Ird.: I. ardatza. Jarduera-politikak.



1. Politika:

Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialen gaineko inbertsioa.

Azpiegitura publikoen gaineko inbertsioa sustatu nahi da, hazkunde ekonomikorako eta enplegurako, bizi-kalitatea hobetuz eta lurraldearen egituraketa osatuz. Gainera, lurraldearen zein bertan jarduten duten eragileen lehiakortasuna nabarmen hobetu nahi dira, bai eta garapen jasangarriagoa bermatu ere. Azken arlo horretan, lehentasuna emango zaie jasangarriagoak diren eta ikuspegi ekonomiko, sozial eta ingurumenetik errentagarritasun handiagoa duten inbertsioei.

Euskadirako azpiegitura moderno eta lehiakorrek hobetu eta finkatu nahi dira, bai izaera ekonomikoagoa

duen dimentsioan (trenbide eta portuetako azpiegiturak, hidraulikoak eta abar), bai dimentsio sozialean (osasun, kultura, hezkuntza, etxebizitza...ar- loko azpiegiturak). Gainera, hiriaren birsorrera eta jasangarritasuna sustatuko dira, bai eta herritarren zerbitzura dauden gizarte-ekipamenduak ere.

“Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialen gaineko inbertsioaren” eremuak **2.976 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa** dauka, eta 7 jarduera-lerrotan garatzen da, honako taula honetan islatzen den bezala:

| AURREKONTU-INBERTSIOEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 |
|--|-----------------|
| TRENBIDE-AZPIEGITURAK | 1.563 M€ |
| PORTUETAKO AZPIEGITURAK | 102 M€ |
| HEZKUNTZA-AZPIEGITURAK (FISIKOAK ETA DIGITALAK) | 451 M€ |
| AZPIEGITURA SANITARIOAK (FISIKOAK ETA DIGITALAK) | 323 M€ |
| ETXEBIZITZA-AZPIEGITURAK | 285 M€ |
| AZPIEGITURA HIDRAULIKOAK | 120 M€ |
| KULTURAKO AZPIEGITURAK | 132 M€ |
| GUZTIRA | 2.976 M€ |

(*) 2020-2024 legealdirako kalkulaturako aurrekontuen datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (% 50eko egozpena 2020an).
Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-beresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urterero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

1. Politika: Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialen gaineko inbertsioa.

Aurreikusitako JARDUERA-LERRO nagusiak honako taula hauetan laburbiltzen dira:

EUSKADIKO GARRAIO JASANGARRIAREN 2030 GIDA PLANA

TRENBIDE-AZPIEGITURAK

Trenbideko inbertsioei lehentasuna ematea eta trenbideko garraioa lurreko garraio publikoaren ardatz bihurtzea horrelako proiektuen bidez: Euskal Y-a, Loiolako tren-aldatzailea, Durango-Bilbo lotura, Pasaia-Irun topoa, Eibar-Donostia linea, Gasteizko eta Bilboko tranbiaren luzapenak, etab.

PORTUETAKO AZPIEGITURAK

Portuko azpiegiturak berritzeko eta modernizatzeko Plana egitea, irisgarritasuna eta trenbideko eta portuko konexioak hobetzea barne (Mutrikuko portuko dikeko obrak amaitzea).

HEZKUNTZA-AZPIEGITURAK (fisikoak eta digitalak)

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Unibertsitate Hezkuntzako ikastetxeen sarea mantentzeko eta indartzeko inbertsioak egitea, irakaskuntza-sistemaren eraldaketari eta digitalizazioari arreta berezia eskainiz.

AZPIEGITURA SANITARIOAK (fisikoak eta digitalak)

Osasun-sektorea eraldatzea, azpiegitura fisikoak hobetuz eta berrituz, ospitaleetako ekipamenduak eta instalazioak hobetuz eta pazienteei emandako zerbitzuen eta osasun-sistema osoaren digitalizazioa indartuz.

KULTURAKO AZPIEGITURAK


Inbertsioak egitea kultura-zentro eta -ekipamenduetan eta ondare historikoarekin lotutakoetan.

AZPIEGITURA HIDRAULIKOAK

Zenbait arro eta udalerritako saneamenduko, hornidurako eta ur-arazketako oinarritzko azpiegiturak osatzea.

ETXEBIZITZA-AZPIEGITURAK

Lurzoru-zuzkidurak eta inbertsioak egitea, alokairuko etxebizitzaren eskaintza publikoa finkatzeko eta eraikitako parkea birgaitzeko.



2. Politika:

Ikerketa, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala.

Ikerketaren, garapen teknologikoaren eta berrikuntzaren aldeko apustua da Euskadiko ongizatea eta lehiakortasuna bermatzeko palanka gakoa. Ikerketak eta garapenak ezagutza berria sortzea erraztu eta sustatzen dute, eta, horrek, era berean, gizarte-erronkei eta lurraldeko kalitatezko enpleguaren eta aberastasun ekonomikoaren sorrerari erantzuten laguntzen du.

Hala, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030 egite-prozesuan dago gaur egun, laster onartzeke, eta, bertan, helburuen artean ezartzen da Euskadi berrikuntzaren arloan aurreratuen dauden

eskualde europarretan kokatu nahi dela, gizarte-erronka nagusiei erantzuna emanez. Hori guztia Euskadiko Espezializazio Adimentsuko Estrategiarekin (RIS3) bat etorriz, eta bereziki jorratuz 3 lehentasun estrategikoak eta 4 aukera-lurralde zehaztuak, ekoizpen-sarearen eskumenetan eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren sisteman oinarrituta.

“Berrikuntza eta I+Gren” eremuak 2.512 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa dauka, eta 6 jardueralerrotan garatzen da, honako taula honetan islatzen den bezala:

| AURREKONTU-INBERTSIOEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 |
|--|-----------------|
| IKERKETA ZIENTIFIKOA ETA UNIBERTSITARIOA (+EHUko ikertzaileak) | 784 M€ |
| IKERKETA TEKNOLOGIKOA ETA INDUSTRIALA | 1.016 M€ |
| IKERKETA ETA ELIKAGAI-GARAPENA | 119 M€ |
| IKERKETA SANITARIOA (+OSAKIDETZAko ikertzaileak) | 265 M€ |
| BERRIKUNTZA PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIO DIGITALA | 107 M€ |
| BERRIKUNTZAKO FUNTS ESTRATEGIKOA | 221 M€ |
| GUZTIRA | 2.512 M€ |

(*) 2020-2024 legealdirako kalkulaturako aurrekontuen datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (% 50eko egozpena 2020an).

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-beresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

Política Nº 2: Investigación, Innovación y Transformación Digital.

Aurreikusitako JARDUERA-LERRO nagusiak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (ZTBP 2030) ezarpen eraginkorrek lotuta eta

% 6tik gorako urteko aurrekontu osagarria emanez (egungo aurrekontu-horniduraren aldean), honako taula hauetan laburbiltzen dira:

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA: ZTBP 2030 (+ AUREKONTUEN HAZKUNDEAREN URTEKO % 6)

ESPEZIALIZAZIO ADIMENDUNA (RIS3):

RIS3 Euskadi 2030 espezializazio adimenduneko oinarriak garatzeko ekimenak sustatzea, 3 lehentasun estrategikoak (industria adimenduna; energia garbiak; eta osasun pertsonalizatua) eta 4 aukera-lurreak (elikadura osasuntsua, ekoberrikuntza; hiri jasangarriak; sormen- eta kultura-industriak) jarraituz.

Europa Horizonteko xedeekin bat, zeharkako ekimen eragileak sartzeari (zahartze osasuntsua; mugikortasun elektrikoa eta ekonomia zirkularra), gizarte-erronken eta RIS3 strategiaren artean integrazio handiagoa lortze aldera.

Espezializazio adimendunak gidatuko ditu, era berean, lehentasunezko euskal ekosistema industrialak, bai eta horiek balio-kate europarretan duten integrazioa ere.

ZEHARKAKO EKIMEN ERAGILEAK

- Zahartze osasuntsua
- Mugikortasun elektrikoa
- Ekonomia zirkularra

BERRIKUNTZAKO FUNTS ESTRATEGIKOA

RIS3 Estrategia garatzeko ekimenak sustatzea, sailen arteko jarduketekin koordinatua eta elkarren osagarri izanik.

BIKAINASUN ZIENTIFIKOA

- Ikerketa zientifikoa: BERC programa.
- Unibertsitate-ikerketa: UPV/EHUko, Mondragon Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko programa-kontratua eta ikerketa-taldeak.

TEKNOLOGIA- ETA INDUSTRIA-LIDERGOA

- Ikerketa teknologikoa eta industrialak: Hazitek, Elkar-tek eta Emaitek programak.
- Ikerketa sanitarioa: Osasun- arloko ikerketa-proiektuen programak (Innosasun, Medtech eta Valiosasun) eta Erosketa Publiko Berritzailea.
- Elikadura-ikerketa: bioekonomia eta elikadura zirkularra bultzatzea.

BERRIKUNTZA IREKIA

- Enpresa-berrikuntza: Innobideak Lehiabide, Kudeabide eta Pertsonak programak.
- ETEen berrikuntza: Hazinnova, Basque Industry 4.0, BIND 4.0 programak.
- Berrikuntza publikoa: Administrazio berritua eta digitala, "Gobernu Digitalaren" euskal estrategia martxan jarritz eta digitalizazioaren bidez osasuna, hezkuntza eta justizia eraldatuz.

TALENTUA

- Talentu zientifikoa erakartzea: Ikerbasque (Research Fellows, Research Associate, Research Professor programak).
- Ikertzaile gazteen prestakuntza: Posdocy Predoc programak.
- Talentu teknologikoa: Berrikertu Programa.



3. Politika:

Energia- eta ingurumen-trantsizioa.

Energiaren eta baliabideen erabilera eraginkorra, energien eta mugikortasun garbiaren sustapena eta ekoberrikuntza funtsezko alderdiak dira ingurumen-jasangarritasunean eta karbono-isuri baxuko ekonomiaranzko trantsizioan aurrera egiteko nazioarteko apustuan. Hori guztia, ikuspegi integraltik, kontuan hartuta energiaren erabilerarekin lotutako ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-alderdiak eta horien kostua, Klimari eta Energiari buruzko 2030eko esparru europarrarekin, Euskadiko Estrategia Energetikoarekin (2030) eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat.

Horretarako, beharrezkoa da energien eta baliabideen erabilera eraginkorra sustatzea, ekonomia

zirkularra eta energia berriztagarriak indartzea, garraio eta mugikortasun jasangarria eta adimendunari lehentasuna ematea, ingurumena babestea eta neutraitasun klimatikoaren helburuak lortzea. Industriak, bere aldetik, funtsezko zeregina izaten jarraituko du Euskadi eraginkortasun energetikoan erreferente europar gisa kokatzeko orduan.

“Energia- eta ingurumen-trantsizioaren” eremuak 357 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa dauka, eta 5 jarduera-lerrotan garatzen da, honako taula honetan islatzen den bezala.

| AURREKONTU-INBERTSIOEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 |
|--|---------------|
| ENERGIAREN ETA BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA | 86 M€ |
| TEKNOLOGIA BERRIETAN OINARRITUTAKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN BULTZADA | 48 M€ |
| GARRAIO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRI ETA ADIMENDUNETARAKO LEHENTASUNA | 81 M€ |
| INGURUMENAREN BABESA | 57 M€ |
| NATURA-ONDAREAREN BABESA ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA | 85 M€ |
| GUZTIRA | 357 M€ |

(*) 2020-2024 legealdirako kalkulaturako aurrekontuen datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (% 50eko egozpena 2020an).

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-beresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

3. Politika: Energia- eta ingurumen- trantsizioa.

Aurreikusitako JARDUERA-LERRO NAGUSIAK, eremu honetan gakoak diren 3 estrategiak biltzen dituztenak (estrategia energetikoa, ingurumen-

estrategia eta Euskadiko ekonomia zirkularraren estrategia), honako tauletan laburbiltzen dira:

EUSKADIKO ESTRATEGIA ENERGETIKOA, INGURUMEN-ESTRATEGIA ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ESTRATEGIA

ENERGIAREN ETA BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA

Eraginkortasun energetikoa eta ekonomia zirkularra hobetzeko inbertsioak babestea sektore ekonomiko eta sozial guztietan: industria-enpresetan, zerbitzu-enpresetan, administrazio publikoan, eraikinen jabeetan (RENOVE programak*), turismo- eta ostalaritza-establezimenduetan nahiz kultura-ekipamenduetan. Basoko bioekonomia garatzea, ekonomiako sektore gakoak eraldatzeko aukera gisa, bio produktuen eta materialen sorreran oinarrituta.

BERRIZTAGARRIEN BULTZADA, TEKNOLOGIA BERRIAK INTEGRATUZ

Teknologia berrien integrazioarekin energia berriztagarrien alde egiten duten instalazioetan inbertsioak sustatzea (biomasa eta biogasak, geotermia, parke eolikoak eta fotovoltaiakoak, etab.), baita teknologia energetiko berrien balidazioko eta erakustaldi esperimentaleko instalazioetan ere.

NATURA-ONDAREAREN BABESA ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA

Tokiko eta eskualdeko energiako, natura-ondarea babesteko eta klima-ekintzako programa eta plan integratuak bultzatzea Udalsarea 2030 sarearen bidez, "Karbono gutxi isurtzen duen udalerrria/eskualdea" kalifikazioa sortuz.

GARRAIO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRI ETA ADIMENDUNETARAKO LEHENTASUNA

Garraioan eta mugikortasun efizientean inbertsio gehiago egitea, elektrifikazioa eta erregai fosilen ordezeko ereduak bultzatuz (Renove Ibilgailuak programa).


ENERGIAREN ELEKTRIFIKAZIOA

Sorkuntza banatuko proiektuak, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak, banaketa-sare elektrikoaren digitalizazioa eta smarterizazioa, hidrogeno berdea sortzeko proiektuak eta abar bultzatzea eta ezartzea.

INGURUMENAREN BABESA

Ingurumenaren babes eraginkorra lortzea, jarduera ekonomikoak eta garatzen diren ingurunea bateragarri eginez.

(*) **Oharra:** Etxebizitzaren RENOVEa, Ikastetxeen RENOVEa eta Osasun-zentroen RENOVEa programak BERPIZTU programaren II. ardatzean sartzen dira, enplegua sortzeko orduan duten eragin bereziagatik. Hala ere, hezkuntzaren eta osasunaren arloko eraikin eta establezimenduen eraginkortasun energetikoa hobetzen ere nabarmen laguntzen dute, eta hori erabakigarria izango da karbono-isuriaren neutraltasunarekin lotutako helburu europarrean aurrera egiteko. Horixe da, hain zuzen ere, Europako Itun Berdeak 2050erako ezarri zuen helburua, Eusko Jaurlaritzaren Klima Larrialdiari buruzko Adierazpenean berretsia.



4. Politika:

Industria eta ETEak, Zerbitzu Aurreratuak, Sormen Industriak eta Nazioartekotzea.

Industria eta zerbitzu aurreratuak Euskadiko ekonomiaren “funtsezko motorra” izan dira eta oraindik ere dira, bai eta bere egitura ekonomikoaren ezaugarri bereizgarria ere. Garapen ekonomikoa eta gizarte-ongizatea bermatzeko, ezinbestekoa da sare ekonomiko indartsua bermatzea, nazioarteko ikuspegia duena eta produktibitatea hobetzearen alde egingo duena, berrikuntzaren eta giza baliabide kualifikatuen bidez.

Testuinguru horren barruan, industria-enpresak “industria 4.0” bihurtzeko ahaleginean jarraituko da. Horretarako, automatizazio eta digitalizazioaren gaineko inbertsioak indartuko dira, eta babes berezia

emango zaie enpresa txiki eta ertainei nahiz zailtasun gehien dituzten sektoreei, bai eta hazkunde-gaitasuna duten eta gakoak diren sektoreei ere. Hori guztia, enpresak nazioartekotzeko eta “talentua” garatu eta erakartzeko ahalegin eta babes berezia eginda, eszenatoki ekonomiko globalean suertatzen diren aukera berriei lehiakortasunez erantzun ahal izateko.

“Industria eta ETEak, Zerbitzu Aurreratua, Sormen Industriak eta Nazioartekotzea” eremuak 1.164 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa dauka, eta 3 jarduera-lerrotan garatzen da, honako taula honetan islatzen den bezala:

| AURREKONTU-INBERTSIOEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 |
|--|-----------------|
| INDUSTRIA-GARAPEN: Basque Industry 4.0, ETEei laguntzea, reshoring-a eta finkatzea, krisian dauden enpresei laguntzea, zerbitzu aurreratuak eta sormen-industriak, eta Health Cluster indartzea | 1.004 M€ |
| ENPRESENTZAKO MAILEGUEN FINANTZA-KOSTUA MURRIZTEA (COVID 19) | 53 M€ |
| ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEA | 107 M€ |
| GUZTIRA | 1.164 M€ |

(*) 2020-2024 legealdirako kalkulaturako aurrekontuen datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (% 50eko egozpena 2020an).

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-beresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

4. Politika: Industria eta ETEak, Zerbitzu Aurreratuak, Sormen Industriak eta Nazioartekotzea.

Aurreikusitako JARDUERA-LERRO nagusiak, Industria Garatzeko Plan Estrategiko berriaren, lehentasunezko Euskal Ekosistema Industrialen,

eta Enpresak Nazioartekotzeko 2025eko Planaren parte direnak, honako taula hauetan laburbiltzen dira:

INDUSTRIA GARATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

TRANSIZIO TEKNOLOGIKOA ETA DIGITALA. BASQUE INDUSTRY 4.0

Inbertsioak indartzea enpresen lehiakortasuna hobetu, digitalizatu eta automatizatzeko orduan aurrera egiteko (Gauzatu Industria programen bidez, enpresa teknologiko eta berritzaileentzat, eta RENOVE Industria programaren bidez, Industria 4.0 sustatzeko), bai eta langileentzako telelanaren gaitasunak eta aukerak indartzea ere.

Basque Artificial Intelligence Center-a garatzea eta 5G Sareak ezartzea, eta produktuetatik irtenbideetarako trantsizio-prozesua sustatzea, zerbitzu aurreratuen enpresak sartuta.

ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN DIGITALIZAZIO ETA BERRIKUNTZARAKO BABESA

Enpresa txiki eta ertainak babesteko plan zehatza garatzea, digitalizazioan aurrera egiteko eta berrikuntza teknologikoan eta ez teknologikoan oinarritutako irtenbideen aplikazioan aurrera egiteko erraztasunak jartzeko.

KRISIAN DAUDEN SEKTOREEI LAGUNTZA ETA AZPIEGITUREI BULTZADA

Egungo osasun-larrialdiaren ondorioz zailtasunak dituzten enpresei zuzendutako babes-programa indartzea, trantsizio teknologiko-digitala eta energetiko-ingurumenekoa gaingiditzen laguntzeko (Bideratu Berria, Bideratu Covid-19 eta Indartu programen bidez), babes-azpiegiturak sustatuz, besteak beste Parke Industrial eta Teknologikoen Sareak, eta klusterren politika indartuz.

ZERBITZU AURRERATUAK ETA SORMEN-INDUSTRIAK

Industriaren lehiakortasuna hobetzea, bere produktuei zerbitzu aurreratuen balio erantsia gehituz (ingeniaritza, teknologia, marketina, finantza-zerbitzuak...) eta sormen-industriak bultzatuz (bideojokoak, eduki digitalak, diseinua, etab.).

INDUSTRIA GARAPENA, RESHORING ETA FINKATZEA

Industria-gaitasun estrategiko berriak sortzea, euskal ekonomiarako funtsezko sektoreen Reshoringa sustatzeko, esaterako osasun-arloan.

Sektore gakoetan dauden eta hazteko eta nazioartekotzeko potentziala duten funtsezko sektoreetan enpresak indartzea, egungo programak eta sortu berriak sustatuz: kapitalean parte hartzea (Finkatuz funtsa), hazkundearen laguntzea (Arrisku-kapitala), tokiko balio-kateak indartzen dituzten proiektu eragileetan inbertitzea.

HEALTH-KLUSTERRAREN INDARTZEA

Osasun-sektorearen eta teknologia- eta enpresa-sektorearen arteko lankidetzaren indartzea, Euskadin BPGd-ari eta enpleguari ekarpena egingo dion osasun-sektore indartsu bat sortzeko.



4. Politika: Industria eta ETEak, Zerbitzu Aurreratuak, Sormen Industriak eta Nazioartekotzea.

Lehentasunezko euskal ekosistema industrialak.


Euskadiko estrategia industrial berriak ekosistema industrialetan buru-belarri aritzearen alde egiten du, trantsizio ekologikoa eta digitala zuzentzeko ikuspegi berri gisa. Ekosistema horiek bat datoz Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean zehaztutako espezializazio adimenduneko eremuekin, bai eta balio-kate estrategikoekin eta ekosistema industrial europarrekin ere.

Ekosistema industrialetan sartzen dira balio-kate batean jarduten duten alde guztiak, hasi sortzen ari diren enpresa txikietatik eta handienetaraino, mundu akademikotik ikertzaileenganaino; eta zerbitzuak ematen dituztenetatik zerbitzuak hornitzen dituztenetaraino. Ekosistema industrial bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu, nahiz

eta guztiek partekatzen duten errealitate bera: merkatu bakar integratua, ikerketa, ingeniari-tza, ekoizpen, muntaketa eta zerbitzuak bezalako jarduerak dituen, herrialde desberdinetan garatzen diren modukoak.

Ekosistemen araberako ikuspegi horrek erraztasunak jartzen ditu errekonstruzio eta inbertsio berrizantzeko beharrezko orduan eta inbertsio berrizantzeko balio erantsi handiagoa izan dezaketen eremuak identifikatzeko orduan, bai eta egon daitezkeen eragozpen fisiko eta digitalak identifikatu eta konpontzeko orduan ere.

EUSKAL EKOSISTEMA INDUSTRIALAK



21. Irudi.: Euskal ekosistema industrialak.

4. Politika: Industria eta ETEak, Zerbitzu Aurreratuak, Sormen Industriak eta Nazioartekotzea.

Enpresak nazioartekotzeko plana 2025.

NAZIOARTEKOTZEA SUSTATZEKO ZERBITZUAK INDARTZEA

Nazioartekotzeko Euskal Agentzia indartzea eta kanpoan bulego berriak irekitzea. EAeko ETEak nazioartekotzen laguntzeko zerbitzu-zorroa zabaltzea eta nazioarteko zaintza- eta alerta-sistema bat sortzea erreferentziazko nazioarteko erakundeekin aliantza estrategikoak eginez (Basque Trade aukeren atari berria). Basque Trade & Investment-ek Merkataritza Ganbarekin duen lankidetzaren sustatzea, enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzeko babesa emateko orduan.

KANPOKO INBERTSIO PUBLIKOKO PROIEKTU PILOTUAK INDARTZEA

Euskadik alde askoko erakundearen inbertsio publikoaren nazioartekotze-proiektuetan duen partaidetza indartzea. Egungo krisiaren ondorioz, ziur asko nazioarteko inbertsio publikoa handitu egingo da, eta igoera hori aprobetxatu nahi da hainbat sektoretan: osasun-azpiegiturak, eraginkortasun energetikoa, hiri-mugikortasun ja-sangarria, Smart Cities, saneamendua...

BASQUE COUNTRY MARKA SENDOTZEA


Euskadi Basque Country marka orokortzea eta zabaltzea, atzerrian dauden euskal enpresei aintzatespena eta ospea emateko tresna gisa, eta haien nazioarteko proiektzioa sustatzea.

TALENTUA GARATZEA ETA ERAKARTZEA

Nazioartekotzeko beken programak indartzea, atzerrian euskal talentua prestatzeko eta nazioarteko talentua erakartzeko.

NAZIOARTEKO BAT-EGITEAK ETA ESKURAKETAK BULTZATZEA

Euskal enpresa-taldearen hazkuntza-eta sendotze-prozesuak babestea nazioarteko bat-egiteen eta eskuraketaren bidez, merkatu-adimeneko tresnen bidez aukerak identifikatzeko eta beharrezko inbertsioei laguntzeko.



5. Politika:

Elikagaigintza.

Landa-ingurua eta kostaldea eta elikagaigintza funtsezko aktiboak dira Euskadiren garapen ja-sangarrian. Hori dela eta, sektorearen etorkizuna bermatzeko funtsezkoa da nekazaritzako elikagaien balio-kate osoa indartu eta lehiakortasuna hobet-zea, lehengaiak ekoitzi eta eraldatzetik hasita horien merkaturatze, gastronomia eta kontsumorai-no. Garapen teknologikoa eta digitalizazioa bektore estrategikoak dira sektoreak aurrera egin dezan. Bide horretan, proiektu berritzaileak sustatzen di-tuzte, sektoreko enpresa txiki eta ertainak teknolo-giara hurbildu daitezen. Horretarako, beharrezko trebakuntza eta babesa eskaintzen zaizkie, teknolo-gia horien gaitasuna ahalik eta gehien aprobetxat-zeko trebetasuna izan dezaten.

Dibertsifikazio ekonomikoak, era berean, eginkizun garrantzitsua dauka testuinguru honetan, elikadu-raren eta landa-inguru eta kostaldearen gaitasun ekintzailea aktibatzen baitu, ekonomia suspertzen eta eremu horietan enplegua sustatzen lagundu ahala. Sektore honetan belaunaldi zaharrak or-dezkatzen direla bermatzea (belaunaldi-erreibua) garrantzi handiko lerroa da oraindik ere.

“Elikagaigintzaren” eremuak **613 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa** dauka, eta 3 jarduera-lerro-tan garatzen da, honako taula honetan islatzen den bezala:

| AURREKONTU-INBERTSIOEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 |
|--|---------------|
| NEKAZARITZA ETA LANDA GARAPENA ('from farm to fork') | 385 M€ |
| ARRANTZA | 100 M€ |
| ELIKAGAIEN SUSTAPENA ETA KALITATEA | 128 M€ |
| GUZTIRA | 613 M€ |

(*) 2020-2024 legealdirako kalkulaturako aurrekontuen datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (% 50eko egozpena 2020an).

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-beresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

5. Politika: Elikagaigintza.

Aurreikusitako JARDUERA-LERRO nagusiak, Nekazaritza Politika Bateratuaren Erakundearteko Plan Estrategikoaren, Euskadiko Gastronomia eta

Elikaduraren Plan Estrategikoaren eta Arrantzako Europako Funtsaren Programa Operatiboren parte direnak, honako tauletan laburbiltzen dira:

NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUAREN ERAKUNDEARTEKO PLAN ESTRATEGIKOA. EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA

BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBUA

Lehen sektorearen etorkizuna bermatzea, belaunaldien arteko errelebua ziurtatuz eta ekintzaile eta profesional berriak erakarriz.

DIBERTSIFIKAZIO EKONOMIKOA

Landa-inguruan eta kostaldean dibertsifikazio ekonomikoak sustatzea, balio-kate berrien bidez garatzeko aukerak dituzten nitxoetan (bioekonomia, turismoa, osasuna eta ongizatea, teknologia berriak, etab.).

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA ETA JASANGARRIA

Euskadin ekoizpen ekologikoa bultzatzea eta nekazaritza-praktika egokiak sustatzea, klima-aldaketaren ondorioak prebenitu eta arintzeko.

LEHIAKORTASUNAREN HOBEKUNTZA

Lehen sektorearen eta elikagaigintzaren lehiakortasuna sustatzea, sektoreen egituraketa eta balio-kateko mailen arteko lankidetzak bultzatzen duten programen, laguntza-neurrien eta finantza-tresnen bidez, masa kritikoak irabazteko, bai eta salmenta-kateak nazioartekotu eta dibertsifikatzea ere.

Nekazaritzaren sektorearen lehiakortasuna hobetzea, animalien ongizatea eta kalitatea, elikagaien segurtasuna eta jasangarritasuna nahiz eraginkortasuna bezalako irizpideen arabera, eta tokiko produktuak merkaturatu eta sustatzeko bide laburrak sustatzea, balio-kateak egituratuz. Kontratazio publikoan ingurumen-klausulak eta tokiko produkzioari laguntzeko klausulak txertatzea. Proiektu berritzaile eta estrategikoak sustatzea, elikadura-sistema propioa garatzeko, lurraldean ekoizpenik handiena modu jasangarrian, sozialean, ekonomikoan eta ingurumena zainduz ematen dela bermatze aldera.

ARRANTZAKO EUROPAKO FUNTSAREN PROGRAMA OPERATIBOA

BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBUA ETA TALENTUAREN ERAKARPENA


Gazteek arrantza-sektoreko enpresen titulartasuna har edo/eta sar dezaten sustatzea. Talentua atxikitzea edo erakartzea nautikako eta arrantzako prestakuntza-zentroetatik arrantza-sektoreko aginte-postu kualifikatuetara (ITSASORATU programa).

ARRANTZA JASANGARRIA

Stock-ak maila jasangarrietan egoteko ahaleginak indartzea, kudeaketa-planen bidez. Legez kanpoko arrantzaren eta iruzurraren aurkako borroka areagotzea, trazaritate-sistema hobetuen bidez.

AKUIKULTURAREN SUSTAPENA

Akuikultura babestea, eta, bereziki, itsas akuikultura, proiektu berritzaileak bultzatuz, akuikultura-parkeak eraikiz eta enpresa berriak sortuz.



6. Politika:

Merkataritza eta Turismo eta Kultura Industria.

Tokiko ekonomiaren gaitasun endogenoa aprobetxatzeak beste ekintza-ardatz batzuen artean merkataritza, turismoa eta kultura suspertzea dakar, digitalizazioa eta IKTak sartuz eraldaketa eta modernizazioko tresna gisa. Halaber, presakuntza eta trebakuntza indartzen ditu, sektore horien profesionalizazioan aurrera egiteko.

Euskadi lanpostuak modu orekatuan sortzen dituen eta kultura-ondasuna eta natura errespetatzen dituen helmuga jasangarri eta adimentsu gisa kokatzea da gure industria turistikoaren lehiakortasuna hobetzeko bide nagusia. Gure ekonomia suspertzeko ezinbestekoa da, era berean, tokiko kontsumoa sustatzea, merkataritza txikia eta ostalaritza

babestuz gizarte-harremanak sustatzen dituzten eta herritarren bizitza indartzen duten hiri-dinamiken katalizatzaile gisa. Halaber, ekosistema kultural eta sortzaile aberats eta askotarikoaren osaera sustatzen bada, berrikuntza eta nazioartekotzea babestuz eta turismoarekin, merkataritzarekin eta I+G+b-rekin sinergiak eta lankidetzak aprobetxatzen dituen “Euskal Barruti Sortzailea” sustatuz, gure kultura berpiztu ahal izango da, eta bere gaitasun guztia motor ekonomiko gisa aprobetxatu.

“Merkataritza eta Turismo eta Kultura Industria-ren” eremuak 313 M €-ko aurrekontu-inbertsioa dauka, eta 3 jarduera-lerrotan garatzen da, honako taula honetan islatzen den bezala:

| AURREKONTU-INBERTSIOEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 |
|---------------------------------------|---------------|
| MERKATARITZA | 84 M€ |
| TURISMOA ETA OSTALARITZA | 76 M€ |
| KULTURAREN INDUSTRIA | 153 M€ |
| GUZTIRA | 313 M€ |

(*) 2020-2024 legealdirako kalkulaturako aurrekontuen datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (% 50eko egozpena 2020an).

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-beresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

6. Politika: Merkataritza eta Turismo eta Kultura Industria.

Aurreikusitako JARDUERA-LERRO nagusiak honako taula hauetan laburbiltzen dira:

MERKATARITZA

KUALIFIKAZIOA ETA BERRITZEA

Prestakuntza eta trebakuntza hobetzea sektorearen profesionalizazioan aurrera egiteko, Merkataritza Eskolaren eta gela digitalen sorrera nabarmenduz, besteak beste. Gazteen kontratazioa sustatzea sektorea berritzeko, beka-programak indartzea eta belaunaldien arteko erreleboa bultzatzea.

MERKATARITZAREN LEHIAKORTASUNAREN HOBEKUNTZA

Merkataritzako lankidetzak, dinamizazio eta lehiakortasunerako estrategien garapena bultzatzea, dauden neurriak indartuz, besteak beste Hirigune programa. Merkataritzako Bulego Teknikoak sendotzea merkataritzako enpresa-sektoreari laguntzeko aktibo nagusi gisa.

DIGITALIZAZIOA ETA DIBERTSIFIKAZIOA

Negozio-eredu berriak garatzen laguntzea, ekonomia digitalean aukerak aprobetxatuz eta digitalizatorako, big datarako eta adimen artifizialerako irtenbideak lehentasunez ezartzea sustatuz.

MERKATARITZAREN, TURISMOAREN ETA KULTURAREN ARTEKO SINERGIEI BULTZADA

Sektoreen arteko sinergiak bultzatzea eta HIRIA 3.1 programa indartzea.

TURISMOA ETA OSTALARITZA.

TURISMO JASANGARRIRAKO EUSKAL ESTRATEGIA (2020-2030)

JASANGARRITASUNA, ERANTZUKIZUNA ETA BIKAINITASUNA

Euskadi-Basque Country marka bultzatzea, helmuga turistiko jasangarri, arduratsu eta bikainari lotuta. "Ingurune, espazio eta establezimendu jasangarrien Top ten" katalogo bat egitea. Berdintasunerako eta enpresen erantzukizun sozialerako programak bultzatzea.

LEHIAKORTASUNAREN HOBEKUNTZA

Lankidetzak eta dinamizazio sektorialeko estrategiak eta tokiko ekonomien garapena sustatzea, laguntza-programak indartuz. Turismoaren adimen lehiakorreko sistema bat garatzea. Belaunaldien arteko erreleboa eta kudeaketa- eta negozio-ereduen berrikuntza bultzatzea, digitalizazioa bultzatuz, Berriz Enpresa programa bezalako ekimenen bidez.

KULTURA-INDUSTRIAK. EUSKADI SORTZAILEA

Euskal Barruti Sortzaile baten sorrera bultzatzea eta kultura- eta sormen-industrien bikaintasuna eta lehiakortasuna hobetzea, turismoarekin eta merkataritzarekin sinergiak eta lankidetzak bilatuz, bai eta I+G+b arloko ekimen bateratuak ere, RIS3 Euskadi Estrategiako gainerako lehentasun-esparruekin.



Aurrekontu-inbertsioen laburpena.

I. ardatzak (ekonomia suspertzea) 7.935 M €-ko aurrekontu-inbertsioa dauka. Halaber, jarduera ekonomikoaren gaineko eragina honela zenbatesten da: 6.000 enpresa berriren sorrera (mikroenpresa txiki eta ertainak eta autonomoak barne); I+G+b-ko 800 proiektu berriren bultzada eta finantzaketa; 10.000 industria-enpresari babesa, modernizatu

eta hedatzeko orduan; eta industriaren eta zerbitzu aurreratuen, elikagaigintzaren eta merkataritza, ostalaritza eta turismoaren sektorearen balio erantsiaren hazkundera.

Beheko taulak inbertsioaren banaketari buruzko ikuspegi globala erakusten du, aurreikusitako 6 politiken arabera.

| AURREKONTU-INBERTSIOEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 |
|--|-----------------|
| 1. AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALAK | 2.976 M€ |
| 2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA | 2.512 M€ |
| 3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA | 357 M€ |
| 4. INDUSTRIA ETA ETE-AK, ZERBITZU AURRERATUAK, SORMEN-INDUSTRIAK ETA NAZIOARTEKOTZEA | 1.164 M€ |
| 5. ELIKAGAIGINTZA | 613 M€ |
| 6. MERKATARITZA ETA TURISMO ETA KULTURA INDUSTRIA | 313 M€ |
| GUZTIRA I. ARDATZA - EKONOMIA SUSPERTZEA | 7.935 M€ |

9. taula: I. ardatza. Aurrekontu-inbertsioen laburpena.

Jarraian, AURREKONTUEN proiektzioen zehaztasunak azaltzen dira, urteka:

| AURREKONTU-INBERTSIOEN PROIEKZIOA (*) | 2020 6 HILABETE | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2020-2024 |
|--|--------------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|
| 1. AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALAK | 275 M€ | 666 M€ | 669 M€ | 676 M€ | 690 M€ | 2.976 M€ |
| 2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA | 246 M€ | 518 M€ | 549 M€ | 582 M€ | 617 M€ | 2.512 M€ |
| 3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA | 36 M€ | 75 M€ | 78 M€ | 82 M€ | 86 M€ | 357 M€ |
| 4. INDUSTRIA ETA ETE-AK, ZERBITZU AURRERATUAK, SORMEN-INDUSTRIAK ETA NAZIOARTEKOTZEA | 134 M€ | 251 M€ | 254 M€ | 259 M€ | 266 M€ | 1.164 M€ |
| 5. ELIKAGAIGINTZA | 66 M€ | 133 M€ | 135 M€ | 137 M€ | 142 M€ | 613 M€ |
| 6. MERKATARITZA ETA TURISMO ETA KULTURA INDUSTRIA | 34 M€ | 68 M€ | 69 M€ | 70 M€ | 72 M€ | 313 M€ |
| GUZTIRA I. ARDATZA - EKONOMIA SUSPERTZEA | 791 M€ | 1.711 M€ | 1.754 M€ | 1.806 M€ | 1.873 M€ | 7.935 M€ |

10. taula: I. ardatza. Aurrekontu-inbertsioen zehaztapena, urteka.

(*) 2020-2024 legealdirako kalkulaturako aurrekontuen datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (% 50eko egozpena 2020an).
Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-beresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

3.4.



3.4.2

II. ardatza. Enplegua Sortzeko Programa.




II. ARDATZA

Enplegua sortzea: 6 politika eta 33 jarduera-lerro.

II. ardatza 6 politika eta 33 jarduera-lerrotan garatzen da, Programaren esparruan enplegua sortzen laguntzeko:



22. irudia: II. ardatza. Jarduera-politikak.



Política Nº 7:

Ekintzailtza. Enpresa berriak.

Osorik sustatzea ekintzailtza, nabarmenduta garrantzi estrategikoa duela gure gizartearentzat. Ezinbestekoa da Euskadiko kultura ekintzailea suspertzea, lurralde ekintzaile gisa duen posizioa finkatuz eta ekintzailtza-gaitasuna aprobeztatuz garapen ekonomikorako, kalitatezko enplegurako eta gizarte-kohesiorako palanka legez.

Horretarako, ezinbestekoa da Ekintzailtza Babesteko Euskal Sistema indartzea, eta, beraz, beharrezko baliabideak eskaintzea enpresen sorrera errazteko, autoenplegua, ekintzailtza eta barne-

ekintzailtza bezalako ekimenak babestuz. Horrekin lotuta, barne-ekintzailtzak funtsezko zeregina beteko du testuinguru ekonomiko berrian enpresak "berrasmatzeko" beharrezanean. Era berean, gizarte-ekintzailtza hurbilari babes berriazkoa ematea ere oso garrantzitsua izango da (lehen sektorea, merkataritza, turismoa, gizarte-ekonomia...).

"Ekintzailtza. Enpresa berriak" eremuak 128 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa dauka, eta eragin balioetsia 10.790 enplegu sustatuko da, 5 jarduera-lerrotan garatuta.

| AURREKONTU-INBERTSIOEN ETA ENPLEGU SUSTATUEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 INBERTSIOAK | 2020-2024 ENPLEGUAK |
|--|--------------------------|------------------------|
| MikroETEak eta pertsona autonomoak | 26 M€ | 4.565 |
| Elikagaigintzaren sektoreko enpresa berriak | 13 M€ | 1.245 |
| Gizarte Ekonomiako enpresa berriak | 6 M€ | 747 |
| Turismo- eta merkataritza-sektoreko enpresa berriak | 8 M€ | 913 |
| Enpresa berri berritzaileak | 75 M€ | 3.320 |
| GUZTIRA | 128 M€ | 10.790 |

(*) 2020-2024 legegintzaldirako kalkulaturako aurrekontuei eta enpleguari buruzko datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (enplegua sortzeko, hasierako estimazioen % 30 hartu da 2020an eta % 70 2021ean, pandemiaren eragina deskontatzeko. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren % 50 kalkulatu da).

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barneberresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.



7. Politika: Ekintzaitza. Enpresa berriak.

Aurreikusitako JARDUERA-LERRO nagusiak Ekintzaitzaren Erakundearteko Planaren bidez

garatzen dira, eta honako taula hauetan laburbiltzen dira:

SORTU BERRIAK DIREN MIKROENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK ETA AUTONOMOAK

Ekintzaileei ideia garatzen eta enpresa-proiektua abian jartzeko laguntzea, prozesuaren fase guztietan lagunduz, finkatu arte, honako hauek barne: laguntza ekonomikoak; aholkularitza aditua eta mentoring-zerbitzuak; langabeziaren kapitalizazioa...

Enplegua eta enpresa-jarduera sustatzen duten toki-erakundeekin lankidetzak sustatzea.

ENPRESA BERRI BERRITZAILEAK

ETE teknologiko eta berritzaile berriak sortzen laguntzea, kalitatezko enplegua sortzen laguntzeko:

- Laguntza ekonomikoak eta finantza-laguntzak
- Aholkularitza eta laguntza BICen bidez (enpresa-berrikuntzako zentroak)
- Aholkularitza, mentoring eta coaching zerbitzuak
- Nazioarteko merkatuetan sartzeko laguntzak

NAZIOARTEKO START-UP-EN ERAKARPENA

Euskal enpresa handiak mundu osoko start-up-ekin konekta daitezkeen sustatzea, berrikuntza-proiektuak bultzatzeko eta Euskadin hazkunde-ahalmen handia duten enpresa berritzaileak ezar daitezkeen sustatzeko (BIND 4.0 plataforma, kasu).


ETE BERRIAK LEHEN SEKTOREAN, GIZARTE-EKONOMIAN, MERKATARITZAN ETA TURISMOAN

Berriazko programen bidez, enpresa berriak sortzen laguntzea enplegua sortzeko potentziala duten sektoreetan, hala nola:

- **Elikadura-katearen sektorea:** landa-eremuan jarduteko programa espezifikoak indartzea eta/edo sortzea (Leader, Erein, Gatenek eta Geroa programak kasu), tokiko erakunde, elkarte eta fundazioekin lankidetzan
- **Ekonomia Soziala:** babes ematea programei, ekonomia sozialeko enpresa berriak sortzeko, nahiz horiek finkatu eta garatzeko, eta enpresa-eredu hori Bind 4.0n sartzeko
- **Merkataritza eta turismoa:** turismo jasangarriarekin eta tokiko kontsumoarekin lotutako enpresak sortzeko eta/edo jarraitzeko laguntza.

ENPRESA-PROIEKTU BERRIAK

Enpresa baten baitan sortutako proiektuak laguntzea, barne-ekintzaitzaren bidez, euskal enpresen barneko ekintzailearen ahalmena aprobetxatu ahal izateko (Barneekintzaile programa kasu), eta inbertsio berritzaileak egitea lehendik dauden enpresetan enplegua sortzeko eta eusteko (Gauzatu Berria programaren bidez, esaterako).



Política Nº 8:

Enplegurako prestakuntza.

Trebakuntza da enplegu-bermerik onena ezagutzan oinarrituta dagoen ekonomiaren esparruan, eta, beraz, etengabeko ikaskuntza sendotasunez indartzeko beharrezana agerikoa da. Gainera, geroz eta konplexuagoak diren ibilbide profesionalak daudenez, lan-merkatuan profil eta eskumen profesional eta pertsonal berriak behar dira, aldatzen ari den tesuinguru sozioekonomikoan enpresen beharrezanez erantzuteko. Eremu honetan nabarmentzekoa da Euskadin Lanbide Heziketako zentroek egin duten ekarpena. Izan ere, urte luzez frogatu duten bezala, ikastetxeok gai dira ezagutza teknologiko berria sortu eta enpresetara helarazteko, eta, hala, langileak trebatzeko, modernizatze eta digitalizatze beharrezanek betetzen laguntzen dute.

Langileentzako prestakuntza indartu beharra dago, okupatuentzat nahiz langabeentzat, eskumen gakoetan, zeharkakoetan eta sortzaileetan prestakuntza bermatzeko eta “talentua” sortzeko. Prestakuntzarekin batera, enpleguaren arloko orientazioa eta laguntza ere funtsezkoak dira, prestakuntza baxuagoa duten kolektiboen enplegarritasuna hobetzeko, laneratzeko ibilbide integralen diseinuaren baitan. Hala, langabezia betirako geratzeko arriskua murrizten da.

“Enplegurako prestakuntzaren” eremuak 342 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa dauka, eta eragin balioetsia 42.100 enplegu sustatuko da, 5 jarduera-lerrotan garatzeko.

| AURREKONTU-INBERTSIOEN ETA ENPLEGU SUSTATUEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 INBERTSIOAK | 2020-2024 ENPLEGUAK |
|--|--------------------------|------------------------|
| Lan-orientazioko programak | 35 M€ | 16.600 |
| Nekazaritza eta arrantzarako trebakuntza-programak (elikadura-katea) | 3 M€ | 519 |
| Kontratazio-konpromisodun prestakuntza | 14 M€ | 1.245 |
| Langabeak laneratzeko prestakuntza | 222 M€ | 23.736 |
| Landunak birziklatzeko prestakuntza | 68 M€ | * |
| GUZTIRA | 342 M€ | 42.100 |

(*) 2020-2024 legegintzaldirako kalkulaturako aurrekontuei eta enpleguari buruzko datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (enplegua sortzeko, hasierako estimazioen % 30 hartu da 2020an eta % 70 2021ean, pandemiaren eragina deskontatzeko. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren % 50 kalkulatu da).

(**) Birziklatze-programek enpleguan egonkortasun eta kalitate handiagoa dute, baina zuhurtasun-hipotesiengatik ez da aurreikusten enplegua zuzenean sortzea.

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barneberresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.



8. Politika: Enplegurako prestakuntza.

Aurreikusitako JARDUERA-LERRO nagusiak honako taula hauetan laburbiltzen dira:

LAN-ORIENTAZIOA

Langabetuei laguntza eta aholkularitza ematea, beren enplegarritasuna hobetu dezaten, laneratzeko ibilbide integralen diseinuarekin lotutako lan-orientazio zerbitzu eta ekintzen bidez, enplegutik urrunen dauden pertsonengan arreta berezia jarrita. Ibilbide horiek irismen integrala izango dute, eta, hala, horren barruan sartuko dira pertsonaren profilaren diagnostikoa eta analisia, ibilbide pertsonalizatuaren diseinua eta beren garapenerako laguntza, enpresekiko bitartekaritza eta ondorengo jarraipena, enpleguan txertatzen direla bermatzeko.

NEKAZARITZA ETA ARRANTZAKO TREBAKUNTZA

Langabeei eta landunei zuzendutako nekazaritza eta arrantzako trebakuntza programak sortzea eta indartzea. Programa horiek lanbide-heziketako zentroetako irakasle adituek emango dituzte.

KONTRATAZIO-KONPROMISODUN PRESTAKUNTZA

Enpresek kontratatzei konpromisoa duten langabeentzako prestakuntza-ekintzen deialdiak garatzea eta indartzea, lanbide-heziketako zentroekin lankidetzan. Helburua berariazko prestakuntza eskaintzea da, langileak enpresetan lanean has daitezen, enpresen beharrian zehatzak asetzeko, lanbide-profil zehatzak behar dituztelako, eta, lan-aukera baliatzeko, berariazko kualifikazio osagarria behar dutelako.

LANGABEAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA


Enplegua lortzeko zailtasunak dituzten edo enplegua mantentzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako prestakuntza-ekintzen programa eta deialdi espezifikoak garatzea, enpresen aldetik kontratazio-konpromisoa hartuta eta toki-erakundeekin, prestakuntza-erakundeekin (LHko zentroak) eta gizarteratzeko eta laneratzeko erakundeekin lankidetzan.

LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA

Landunen eskumenak eta kualifikazioak lanean eta ekoizpenean sortzen diren aldaketetara egokitzeko eta horiek hobetzeko prestakuntza-ekintza eta -programak garatzea, beren gaitasunak eta enpresen lehiakortasuna nahiz produktibitatea areagotzeko. Landunen etengabeko prestakuntza profesionalen eta enpresen lehiakortasunerako erronka handietako bat da.

Lanbide Heziketako zentroetan ezagutza teknologikoaren sorrera sustatzea eta ezagutza hori enpresetara helaraztea, langileen prestakuntza eta trebakuntzaren bidez, modernizazioaren eta digitalizazioaren erronkei erantzuten laguntzeko asmoz.

Lanbide Heziketaren eremuan, Laneko Esperientzia Aitortzeko dispositiboa zabalduko da, euskal produkzio-sarera eta heziketa-ziklo guztietara hedatzeko.



9. Politika:

Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak.

Laneratzea sustatzeko programen bidez enplegu-aukerak erraztea bereziki garrantzitsua da Covid-19 osteko krisiak eragindako egungo egoera sozioekonomikoan, susperraldi sozioekonomikoko aukerak enplegua sortu eta berreskuratzeko aukera bihurtze aldera.

Kolektibo kaltetuenek edo enplegarritasun txikiagoa dutenek (45 urtetik gorako langabetuak, iraupen luzez geldirik direnak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, desgaitasuna duten pertsonak...) protagonismo berezia izango dute halako babes-programetan, beraienganako diskriminazio positiboa sustatuz, enplegua eskuratzeko

orduan aukera-berdintasun eraginkorra bermatu dadin eta kalitatezko enplegua zaindu dadin.

Era berean, tokiko enplegu-programak babestea funtsezkoa da tokiko enpleguak dituzten lekuen ahalmena aprobetxatzeko eta udalerrriak eta eskualdeak suspertzen eta berreskuratzen laguntzeko.

“Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak” eremuak 577 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa dauka, eta eragin balioetsia 26.110 enplegu sustatuko da, 8 jarduera-lerrotan garatzeko.

| AURREKONTU-INBERTSIOEN ETA ENPLEGU SUSTATUEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 INBERTSIOAK | 2020-2024 ENPLEGUAK |
|--|--------------------------|------------------------|
| Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak | 174 M€ | 14.525 |
| Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak laneratzeko laguntza, prestakuntza eta lan-aktibazioko ekintza integralen bidez (proiektu bereziak) | 18 M€ | 1.245 |
| Luzaroko langabeen laneratzea, sektore pribatuan kontratatze laguntzen bidez | 6 M€ | 518 |
| Laneratzeko programa espezifikoak enpresetan | 58 M€ | 3.182 |
| Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa enpresetan (kontratazio mugagaberako laguntzak + en-plegu lagundua) | 8 M€ | 830 |
| Enplegu-zentro bereziak | 258 M€ | (**) |
| Laneratze-enpresentzako laguntzak | 45 M€ | (**) |
| Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak sustatutako enplegua | 10 M€ | 5.810 |
| GUZTIRA | 577 M€ | 26.110 |

(*) 2020-2024 legegintzaldirako kalkulaturako aurrekontuei eta enpleguari buruzko datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (enplegua sortzeko, hasierako estimazioen % 30 hartu da 2020an eta % 70 2021ean, pandemiaren eragina deskontatzeko. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren % 50 kalkulatu da).

(**) Programa hauek laneratze eta gizarteratzeko nahiz gizarte-kohesiorako tresna aurreratuak dira, eta enplegurako trantsizioa eragiten dute. Ondorioz, ez dira eraginaren arabera zenbatetsi.

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.



9. Politika: Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak.

Aurreikusitako JARDUERA-LERRO nagusiak honako taula hauetan laburbiltzen dira:

TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK

Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen bidez langabetuen kontratazioa sustatu eta enplegarritasuna hobetzea. Ekintza horien barruan sartzen da tokierakundeek enplegua sustatzeko jarduerak egitea, tokiko enpresek kontratazioa suspertzea eta tokiko enpresa-proiektu estrategikoak garatzea.

Era horretako ekintzak indartzea gune eta udalerrri kaltetuetan edo/eta lehenasunezko jarduera-guneetan (Meatzaldea, Ezkerraldea, Oarsoaldea eta Enkarterriak), babes-lerro espezifikoaren bidez.

BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN LANERATZEA ETA LANERATZEKO ENPRESENTZAKO LAGUNTZAK

Laguntza ematea prestakuntza-ekintzak, esperientzia praktikoa, laneratzeko laguntza, orientazioa, banakako laguntza eta enplegarritasuna eta laneratzeko hobetzeko beste neurri batzuk konbinatzen dituzten “proiektu bereziei”. Proiektu hauen kolektibo onuradunak gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak dira, eta behar espezifikoak dituzten pertsona landunak. Helburua, beraz, lan-merkatuan sar daitezela eta bertan jarraitu dezatela bermatzea da.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN KONTRATAZIOA

Desgaitasuna duten pertsonen ohiko enpresetan kontratu mugagabeak egiteko laguntzak sustatzea, emakumeen kontratazioa sustatuz, eta lanpostua egokitzeko laguntza osagarriak indartzea.

Zailtasun- eta desgaitasun-maila handienak dituzten pertsonak aldi baterako kontratatze laguntzak ematea, enpresentzako euskarri teknikoa barne.

LUZAROKO LANGABEEN KONTRATAZIOA

Enpresek kolektibo kaltetuenak kontratatu ditzaten erraztasunak jartzea (iraupe luze langabetuak, 45 urtetik gorakoak, emakumeak, menpeko pertsonak...), lan-merkatuan sar daitezela sustatzeko, kontratazioa sustatzeko programa espezifikoaren bidez.

ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK

Gizarte- edo enpresa-ekimenetik sortutako enplegu-zentro bereziak bultzatzea, desgaitasunak dituzten pertsonen eta lan-munduan sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen lanpostuei eusten laguntzeko.

LANA ETA FAMILIA BATERAGARRI EGITEKO PERTSONAK ORDEZKATZEKO KONTRATAZIOA

Lana eta familia bateragarri egiteko xedez eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileak ordezkatze langabeak kontrata ditzaten edo enplegatuen lanaldia zabal dezaten laguntzea.



10. Politika:

Renove programak. Eraikuntzaren birgaikuntza.

Eraikuntzaren sektorean, birgaikuntza bereziki garrantzitsua da enpleguan, modu erabakigarrian laguntzen baitu garapen jasangarrian, etxebizitzaren arloan gainean jarduten duelarik. Zehazki, eta, lehentasunez, euskal etxebizitzaren irisgarritasun eta eraginkortasun energetikoko baldintzak hobetzen eta ekipamendu eta azpiegitura publikoak berritzen laguntzen du, besteak beste osasun-zentroak eta ikastetxe publikoak.

Birgaikuntza-programak babestea oso garrantzitsua da jarduera-esparru honetan, eraikinen eta eki-

pamenduen eraginkortasun energetikoa hobetzea erabakigarria izango baita karbono-isurien neutritasuna lortzeko helburu europarrean aurrera egiteko orduan. Helburu hori zehaztu zuen, zehazki, Europako Itun Berdeak 2050erako, eta Eusko Jaurlaritzaren Klima Larrialdiaren Adierazpenean berretsi egin zen.

“Renove programak. Eraikuntzaren birgaikuntza” eremuak 406 milioi euroko aurrekontu-inbertsio dauka, eta eragin balioetsia 15.000 enplegu sustatuko da, 3 jarduera-lerrotan garatzeko.

| AURREKONTU-INBERTSIOEN ETA ENPLEGU SUSTATUEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 INBERTSIOAK | 2020-2024 ENPLEGUAK |
|--|--------------------------|------------------------|
| Etxebizitzaren Renove-a | 143 M€ | 10.269 |
| Ikastetxeen Renove-a | 209 M€ | 3.752 |
| Osasun-zentroen Renove-a | 54 M€ | 979 |
| GUZTIRA | 406 M€ | 15.000 |

(*) 2020-2024 legegintzaldirako kalkulaturako aurrekontuei eta enpleguari buruzko datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (enplegua sortzeko, hasierako estimazioen % 30 hartu da 2020an eta % 70 2021ean, pandemiaren eragina deskontatzeko. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren % 50 kalkulatu da).

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barneberresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.



10. Politika: Renove programak. Eraikuntzaren birgaikuntza.

Aurreikusitako JARDUERA-LERRO nagusiak honako taula hauetan laburbiltzen dira:

RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZAREN BIRGAIKUNTZA

Birgaikuntzaren aldeko apustuak eragin garrantzitsua dauka, bai enplegua sortzeko orduan, bai ingurumenean eta gizartean. Hala, ekonomia suspertu eta jasangarritasuna lortzeko orduan motor garrantzitsua da oraindik ere parke eraikia berritu eta birgaitzeko programa berrien garapena bultzatzea, eraginkortasun energetikoko irizpideen arabera eta zero isuriak dituzten erakinak lortzeko helburuarekin.

Eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzea erabakigarria izango da, Europako Itun Berdean eta Eusko Jaurlaritzaren Larrialdi Klimatikoaren Adierazpenean 2050erako ezarritako karbono-isurien neutraltasuna lortzeko. Gainera, aukera argia da birgaikuntzaren eta eraikuntzaren sektorean jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta euskal ekonomian lanpostu berde berriak sortzeko, COVID-19ak sortutako egungo krisitik irteteko Europako Batzordeak ezarri dituen lehentasunekin bat eginez.

Eraikinek EBren energia-kontsumoaren % 40 eta berotegi-efektuko gasen isuriaren % 36 eragiten dute. Isurketa horiek, batik bat, eraikinak eraikitzean, erabiltzean, berritzean eta eraistean sortzen dira. Dagoeneko erabiltzen diren eraikinak irizpide horien arabera berrituz gero, energiaren

gutzizko kontsumoa % 5-6 murriztu liteke, eta karbono dioxidoaren isurketak % 5 jaitsi, gutxi gorabehera.

Testuinguru horretan, etxebizitzaren, ikastetxe publikoen eta osasun-zentro publikoen eremuetan 3 birgaikuntza-programa babestuko dira batez ere:

Etxebizitzaren RENOVEa: Etxebizitzak birgaitzeko azpisektorean enplegua sortzea edo/eta finkatzea, eta etxebizitzaren mantentze-egoera, irisgarritasuna eta energia-efizientzia hobetzea.

Ikastetxeen RENOVEa: Enplegua sortu edo/eta finkatzea birgaikuntzaren azpisektorean, ikastetxe publikoetako birgaikuntza- eta hobekuntza-lanen bitartez.

Osasun-zentroyen RENOVEa: Enplegua sortu edo/eta finkatzea birgaikuntzaren azpisektorean, osasun-zentro eta - ekipamendu publikoetako birgaikuntza- eta hobekuntza-lanen bitartez.



11. Politika:

Enplegu publikoaren eskaintzak.

Administrazio publikoarentzat erronka da, oraindik ere, enplegu publikoaren sektorea enplegu-emaile eraginkor eta efiziente gisa finkatzea, hots, kalitatezko enplegua sortu eta hobetuko duen erakunde gisa. Horretarako, beharrezkoa izango da belau-naldi-erlebuaren planifikazio egokia sustatzen jarraitzea eta enplegu publikoa lehenestea gizar-te-politikekin lotutako eremuetan (osasuna eta hezkuntza, esaterako), funtsezko zerbitzuetan (segurtasuna, adibidez) eta zerbitzu orokorren beste eremu batzuetan.

“Enplegu publikoaren eskaintzen” eremuak 10.720 enplegu sustaturen eragin balioetsia dauka, EPEn urteko deialdien onarpenaren bidez, eta txanda libreko eta barne-sustapeneko plazak ditu batez ere osasunaren, hezkuntzaren, segurtasunaren eta administrazio orokorraren eremuekin lotutako 6 jarduera-lerrotan.

| AURREKONTU-INBERTSIOEN ETA ENPLEGU SUSTATUEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 INBERTSIOAK | 2020-2024 ENPLEGUAK |
|--|--------------------------|------------------------|
| Administrazio Orokorra | * | 1.150 |
| Osasuna | * | 4.100 |
| Ertzaintza | * | 1.900 |
| Hezkuntza | * | 3.100 |
| Justizia | * | 320 |
| Bestelakoak | * | 150 |
| GUZTIRA | * M€ | 10.720 |

(*) Ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapitulu Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

(**) Enpleguen balioespenak onartutako plazak aipatzen ditu, bai txanda librekoak, bai barne-sustapenekoak.

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.



12. Politika:

Talka-plana. Gazteen enplegua.

Gazteena da aurreko krisi ekonomikoen ondorioak gehien jasan dituen kolektiboetako bat, eta, beraiek izango dira, era berean, Covid-19aren egungo krisiaren eragina bereziki sumatuko dutenak. Enplegua eskuratzeko aukerak berariaz sustatzea ezinbestekoa eta beharrezkoa da. Horretarako, politika zeharkako eta koordinatua behar da, gazteek garapen pertsonalerako eta profesionalerako prestakuntza, gaitasunak eta eskarmentua eskuratu ditzaten.

Horretarako, funtsezkoa da programa espezifiko eta berritzaileak babesten jarraitzea, enplegua eta prestakuntzako aukerak uztartzen dituztenak, eta bereziki erreparatu beharko zaio prestakuntza baxuagoa duten edo/eta eskolan porrot egitetik datozen

gazteen kolektiboari. Programa horiek enplegua eskuratzeko erraztasunak jarriko dituzte, hainbat bide tarteko: kontratazioa enpresetan, gazteen ekintzailtza, hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioko lehen esperientzia, nazioarteko esperientzia praktikoa eskuratzeko bekak... Bide horiez gain, enplegarritasuna hobetu beharra dago, enplegurako prestakuntzaren bidez nahiz lanbide dualeko ereduak sakonduz.

“Gazteen enpleguarekiko konpromisoaren” eremuak 162 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa dauka, eta eragin balioetsia 25.800 lanpostu sustatukoa da, 6 jarduera-lerrotan garatzeko.

| AURREKONTU-INBERTSIOEN ETA ENPLEGU SUSTATUEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 INBERTSIOAK | 2020-2024 ENPLEGUAK |
|---|--------------------------|------------------------|
| Lanbide-heziketako eta unibertsitateko sistema duala enplegurako | ** | 11.990 |
| Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programak | 14 M€ | 3.280 |
| Gazteen enplegurako prestakuntza-bekak | 42 M€ | 1.936 |
| Gazteak laneratzeko prestakuntza | 18 M€ | 2.728 |
| Gazteen enplegurako programak: Lehen Aukera, Errelebo Kontratu, Gazteen Itzulera eta Gazteak gizarteratzeko ekintza berritzaileak | 65 M€ | 4.150 |
| Gazteen ekintzailtza | 23 M€ | 1.716 |
| GUZTIRA | 162M€ | 25.800 |
| <i>Enplegu-programa orokorren eragina gazteen enpleguan</i> | | 27.514 |
| GUZTIRA GAZTE ENPLEGU SUSTATUA | | 53.315 |

(*) 2020-2024 legegintzaldirako inbertsioari eta enpleguari buruzko datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (enplegua sortzeko, hasierako estimazioen % 30 hartu da 2020an eta % 70 2021ean, pandemiaren eragina deskontatzeko. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren % 50 kalkulatu da).

(**) Aurrekontua ez da sartu, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko langileen gastuen kapituluan sartuta dagoelako.

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-beresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

12. Politika: Talka-plana. Gazteen enplegua.

Aurreikusitako JARDUERA-LERRO nagusiak honako taula hauetan laburbiltzen dira:

LANBIDE-HEZIKETAKO ETA UNIBERTSITATEKO SISTEMA DUALA ENPLEGURAKO

Prestakuntza dualaren eredia sustatzea unibertsitateen eta lanbide-heziketaren eremuan, eskumenen garapena azkartzeko eta eremu profesioaletara egokitzeko, ikasleen prestaketa indartu eta lehiakortasuna hobetze aldera, prestakuntza dualeko programak hezkuntza-maila guztietara (Lanbide Heziketa eta Unibertsitateak) eta euskal ekonomiako sektoreetara hedatuz.

HEZKUNTZA-MUNDUTIK LAN-MUNDURA IGAROTZEKO PROGRAMAK

Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programak indartzea, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako zentroekin lankidetzan, eta, horretarako, esperientzia praktikoa sustatzea, euskal enpresetan enplegu kualifikatuan aritzeko ezagutzak, gaitasun teknikoak eta trebetasunak areagotuz.

GAZTEEN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-BEKAK

Euskal enpresentzat interesgarriak diren eremuetan titulu berri diren gazteen prestakuntza eta kualifikazioa hobetzeko beka-programak sustatzea, laneratzeko ekintza berritzaileen bidez, beste agente batzuekin lankidetzan, eta esperientzia praktikoaren bidez, besteak beste honako eremuetan: nazioartekotzea, inguru zientifiko-teknologikoa edo nekazaritza-arrantzaren sektorea nahiz elikagaigintza.

GAZTEAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Gazteen enplegurako prestakuntza-ekintzak eta kualifikazio baxuko gazteen laneratze eta gizareratzeko prestakuntza-ekintza espezifikoak indartu eta sustatzea, enpresen eskarrietara egokitzeko eta erantzuteko duten gaitasuna hobetze aldera. Era berean, etorkizuneko ibilbide profesional bideragarri berriak hasi ahal izateko aukera sustatuko da.

LEHEN AUKERA

Langabezian dauden edo lan-esperientzia gutxi duten pertsonen kontratu mugagabeak edo gutxieneko iraupena duten praktikaldiak egiten laguntzea, emakumeen kontratazioa sustatuz.

ERRELEBO-KONTRATUA

Enpresetako plantillak berritzen laguntzea, 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako lanaldi osoko errelebo-kontratuen edo kontratu mugagabeen bidez, emakumeak kontratatzekeo pizgarriak emanez.



12. Politika: Talka-plana. Gazteen enplegua.

Aurreikusitako **JARDUERA-LERRO** nagusiak honako taula hauetan laburbiltzen dira:

GAZTEEN ITZULERA

Gure erkidegotik kanpo prestatu ondoren Euskadira itzuli nahi duten edo azken sei hilabeteetan itzuli diren gazteak enpresetan barne har ditzaten sustatzea. Kontratu mugagabeak eta emakumeen itzulera sustatuko dira.

GAZTEEN EKINTZAILETZA

Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleen artean ekintzaitzaren kultura bultzatzea, enpresa berrien sorrera sustatuz eta bultzatuz unitate espezializatu propioetatik (mintegiak, inkubagailuak, etab.), pertsona ekintzaileari hasierako ideiatik enpresa berriaren sorkuntzara lagunduko diotenak (adib. Urrats Bat programa LHko zentroetan). Era berean, gazteek mikroenpresa txiki eta ertainen edo/eta pertsona autonomoen ekintzaitza-programa edo -ekimenetan duten presentzia indartzea.

GAZTEAK GIZARTERATZEKO EKINTZA BERRITZAILEAK

Lehen lan-aukera bilatzen ari diren gazte tituludunen enplegarritasuna handitzeko jarduerak garatzea. Besteak beste, honako jarduera hauek egin daitezke: harrera egitea eta enplegarritasuna diagnostikatzea, profesionalen, mentoreen eta abarren plan indibidualizatuak diseinatzea, eta zehaztutako gizarteratze-plan pertsonala gauzatzen laguntzea eta haren jarraipena egitea.

Aurrekontu-inbertsioen eta enplegu sustatuen laburpena.

II. ardatzak (Enplegua sortzea) 1.615 M €-ko aurrekontua dauka. Horrekin 2020-2024 aldian 135.520 enplegu suspertzen lagundu nahi da

(Beheko taulan ageri da enpleguan espero diren emaitzen eta inbertsioaren banaketaren ikuspegi orokorra, aurreikusitako 6 eremuen arabera).

| AURREKONTU-INBERTSIOEN ETA ENPLEGU SUSTATUEN PROIEKZIOA (*) | 2020-2024 INBERTSIOAK | 2020-2024 ENPLEGUAK |
|---|-----------------------|---------------------|
| 7. EKINTZAILITZA. ENPRESA BERRIAK | 128 M€ | 10.790 |
| 8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA | 342 M€ | 42.100 |
| 9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK | 577 M€ | 26.110 |
| 10. RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZAREN BIRGAIKUNTZA | 406 M€ | 15.000 |
| 11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK | ** | 10.720 |
| 12. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA | 162 M€ | 25.800 |
| GUZTIRA II. ARDATZA - ENPLEGUA SORTZEA | 1.615 M€ | 130.520 |

11. taula: II. ardatza. Inbertsioen eta enplegu sustatuen laburpena.

(*) **Oharra:** 2020-2024 legegintzaldirako kalkulaturako aurrekontuei eta enpleguari buruzko datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (enplegua sortzeko, hasierako estimazioen % 30 hartu da 2020an eta % 70a 2021ean, % 100eko EPEak izan ezik, pandemiaren eragina deskontatzeko. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren % 50 kalkulatu da).

(**) **Oharra:** Ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapitulu Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

Jarraian, AURREKONTU-INBERTSIOEN proiektzioen zehaztasunak azaltzen dira, urteka:

| AURREKONTU-INBERTSIOEN PROIEKZIOA (*) | 2020 6 HILABETE | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2020-2024 |
|---|-----------------|---------------|---------------|---------------|---------------|-----------------|
| 7. EKINTZAILITZA. ENPRESA BERRIAK | 14 M€ | 28 M€ | 28 M€ | 29 M€ | 29 M€ | 128 M€ |
| 8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA | 37 M€ | 74 M€ | 75 M€ | 77 M€ | 79 M€ | 342 M€ |
| 9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK | 63 M€ | 125 M€ | 127 M€ | 129 M€ | 133 M€ | 577 M€ |
| 10. RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZAREN BIRGAIKUNTZA | 44 M€ | 88 M€ | 89 M€ | 91 M€ | 94 M€ | 406 M€ |
| 11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK | ** | ** | ** | ** | ** | ** |
| 12. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA | 18 M€ | 35 M€ | 36 M€ | 36 M€ | 37 M€ | 162 M€ |
| GUZTIRA II. ARDATZA - ENPLEGUA SORTZEA | 176 M€ | 350 M€ | 355 M€ | 362 M€ | 372 M€ | 1.615 M€ |

12. taula: II. ardatza. Aurrekontu-inbertsioen zehaztapena, urteka.

(*) **Oharra:** 2020-2024 legealdirako kalkulaturako aurrekontuen datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (2020. urtearen % 50a egotzi da).

(**) **Oharra:** Ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapitulu Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.



Aurrekontu-inbertsioen eta enplegu sustatuen laburpena.

Jarraian, ENPLEGU SUSTATUEN proiektzioen zehaztasunak ageri dira, urteka:

| PROYECCIÓN DE EMPLEOS INDUCIDOS (*) | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2020-2024 |
|---|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|----------------|
| 7. EKINTZAILETA. ENPRESA BERRIAK | 780 | 1.820 | 2.600 | 2.730 | 2.860 | 10.790 |
| 8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA | 3.044 | 7.102 | 10.145 | 10.650 | 11.160 | 42.100 |
| 9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK | 1.888 | 4.404 | 6.292 | 6.606 | 6.920 | 26.110 |
| 10. RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZAREN BIRGAIKUNTZA | 1.084 | 2.530 | 3.614 | 3.795 | 3.976 | 15.000 |
| 11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK | 2.065 | 2.625 | 1.865 | 2.035 | 2.130 | 10.720 |
| 12. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA | 1.867 | 4.352 | 6.217 | 6.527 | 6.838 | 25.800 |
| GUZTIRA II. ARDATZA - ENPLEGUA SORTZEA | 10.727 | 22.833 | 30.733 | 32.343 | 33.884 | 130.520 |

13. taula: II. ardatza. Enplegu sustatuen zehaztapena, urteka.

(*) Oharra: 2020-2024 legealdirako kalkulaturako enplegu-datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda. Hasierako balioespenen % 30a hartu da 2020an eta % 70a 2021ean, pandemiaren eragina deskontatzeko (EPEak salbu, % 100ean).

3.5.




**3.5.
Euskadiko ekonomia eta
enplegua suspertzeko
Programaren ikuspegi
globala.**



Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa (2020-2024)

(*) Estimazio biribilduak



23. Irld.: Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa (2020-2024).

Oharra: 2020-2024 legeingizaldirako inbertsioei eta enpleguari buruzko datuak, legeingizaldia hasi zenetik (enplegua sortzeko, hasierako estimazioen %30 hartu da 2020an eta %70 2021ean, %100eko EPEak izan ezik, pandemiaren eragina deskontatzeko. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren %50 kalkulatu da, abalak ezin ezik, %100ean egozten baitira).

3.6.




3.6.
Gobernantza-eskema.



Berpiztu Programaren gobernantza.

Hiru organo eratu dira, horietan burutzeko Programaren gobernantza:



1.

KONTSEILU ERREKTOREA

Berpiztu Programaren Kontseilu Errektorea ezarri da. Erakundeartekoa da, eta berau izango da programaren kudeaketa eta jarraipenerako organo gorena. Honako hauek izango dira Kontseiluko kideak: Lehendakaria (burua izango da), bigarren lehendakariordea (Lan eta Enplegu sailburua), Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua, eta Ogasun eta Ekonomiako sailburua, Jaurlaritzaren aldetik.

Gainera, beste erakunde batzuen ordezkari gisa parte hartuko dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputatu nagusiek, bai eta Eudeleko buruak ere.

Lehendakaritzako idazkari nagusiak jardungo du Kontseiluan, programaren koordinatzailea denez gero, eta urtean bi aldiz egingo dira ohiko bilerak, planaren jarraipena egiteko eta egokitzat jotzen diren indartze- edo/eta egokitzapen-neurriak hartzeko.

Kontseiluak Batzorde Tekniko bat izendatu ahal du, lagun diezaion.

Berpiztu Programaren gobernantza.

2. SAILARTEKO BATZORDEA

Berpiztu Programaren Sailarteko Batzordea eratu da. Batzorde horretako kideak programan sailburuordetza-mailan aurreikusitako ardatz, politika eta jarduera-plan desberdinen ardurdunak izango dira. Hala, bertan parte hartzen duten Jaurlaritzako sail desberdinen jardueraprogramen jarraipena egitea izango da Batzorde horren helburua.

Sailarteko Mahaiaren ardurdun koordinatzailea Lehendakari izango da.

Sailarteko Batzordeak urtean ohiko bi bilera egingo ditu, urte bakoitzeko azken hiruhilekoan eta lehen hiruhilekoan, bai eta ezohiko bilerak ere, halakorik egin behar dela uste den aldiro.

3. ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIA ETA JARRAIPENERAKO MAHAI SOZIOEKONOMIKOA

Jarraipenerako Mahai Sozioekonomikoa Berpiztu Programa egiteko prozesuaren egiaztapen-lanean parte hartu duten eragile ekonomiko eta sozialek eratzen dute. Mahaiak urtero jasoko du Programa horren gaineko informazioa, eta ekarpenak eta iradokizunak bilduko ditu, Programako helburuak hobeto betetzeko. Era berean, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak, aholkularitzarako eta hiru aldeko itunetarako tresna den aldetik, partaidetza aktiboa eta lehentasunezkoa edukiko du Berpiztu Programaren urteko jarraipena eta balorazioa egiteko orduan.

1. E



1. ERANSKINA

Berpiztu programaren hasierako oinarriak eragile instituzional eta sozioekonomikoekin egiaztatzeke eta ekarpenak egiteko prozesuaren laburpena.

Berpiztu Programa egiaztatzekeo prozesua.

Lehendakariak Ekonomia eta enplegua suspertzekeo Programaren oinarriak aurkeztu zituen 2020ko irailaren 29ko Gobernu Kontseiluan. Ondoren, Programa hori eragile ekonomiko eta sozialekin egiaztatzekeo prozesu formala hasi zen, eragileon ekarpenak eta balorazioak jasotze aldera. Prozesu hori urriaren amaierara arte egon da martxan, eta honako partaidetza hauek eduki ditu(*):

Programa barne-mailan egiaztatu da, Jaurlaritzaren baitako sail inplikatueneekin, eta, horrez gain, kanpo-mailan ere egiaztatu da, beste erakunde batzuekin eta Elkarrizketa Sozialaren Mahaiarekin, bai eta Euskadin koronabirusaren pandemiaren jarraipena egiteko martxan jarri den Mahai Sozioekonomikoko beste eragile batzuekin ere. Jasotako

ekarpenak kontuan hartu dira behin betiko agiria egiteko orduan, eta Berpiztu Programa garatu eta betearaztekeo prozesuan ere aintzat hartuko dira. Ekarpen batzuen erreferentzia zehatzak aurkeztutako lan-oinarriei buruzkoak dira.

| ZK. | ERAKUNDEA | ANTOLAKUNDEAK |
|-----|---|---|
| 1 | Foru aldundiak | Arabako Foru Aldundia; Bizkaiko Foru Aldundia; Gi-puzkoako Foru Aldundia |
| 2 | Elkarrizketa Sozialaren Mahaia | Confebask; CCOO; UGT; Lan Harremanen Kontseilua; Eusko Jaurlaritzaren (Lan eta Enplegu Saila; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; Lehen-dakaritza) |
| 3 | Eusko Jaurlaritzaren Sailburuordetzak I. ardatza - Ekonomia suspertzea | Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; Ekonomia eta Ogasun Saila; Hezkuntza Saila; Lu-rralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila; Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila; Lehendakaritza |
| 4 | Eusko Jaurlaritzaren Sailburuordetzak II. ardatza - Enplegua sortzea III. ardatza - Enpleguaren kalitatearen hobekuntza | Lan eta Enplegu Saila; Gobernantza Publiko eta Autogo-bernu Saila; Ekonomia eta Ogasun Saila; Hezkuntza Saila; Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila; Osa-sun Saila; Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila; Lehendakaritza |
| 5 | Mondragon Korporazioa | Lehendakaritza |
| 6 | Euskal Merkataritza Ganberak | Bilboko Merkataritza Ganbera; Arabako Merkataritza Ganbera; Gipuzkoako Merkataritza Ganbera |
| 7 | Konfekoop | Zuzendaritza-taldea |
| 8 | Elkargi | Zuzendaritza-taldea |
| 9 | Euskadiko BGAE Federazioa | Zuzendaritza-taldea |
| 10 | ELA sindikatua | Idazkaritza Nagusia (*) |
| 11 | LAB sindikatua | Idazkaritza Nagusia (*) |

(*) El 16 de octubre se envió una comunicación a las Secretarías Generales de los sindicatos ELA y LAB, aportando el documento de bases y solicitando su contribución (ver comunicaciones).

1.E.



**Berpiztura
egindako ekarpenak,
erakundeen eta eragile
sozioekonomikoen
aldetik.**

Berpiztura egindako ekarpenak, erakundeen eta eragile sozioekonomikoen aldetik.



COMPROMISO POR LA REACTIVACIÓN ECONÓMICA Y EL EMPLEO

El Gobierno Vasco y las tres Diputaciones Forales nos hemos reunido para compartir un diagnóstico sobre la situación actual de crisis causada por el coronavirus y acordar las bases para ofrecer una respuesta global y coordinada a la misma. Un Compromiso para promover la reactivación económica y el empleo de Euskadi.

Ante la virulencia de la crisis tanto sanitaria como económica, el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales adoptamos, desde el primer momento, medidas de emergencia para contener y mitigar la pandemia y sus efectos. Fueron medidas de resistencia dirigidas a reforzar el sistema sanitario, socorrer a las familias y personas más vulnerables y apoyar al tejido empresarial, especialmente a pymes y autónomos.

Ha llegado el momento de dar un nuevo impulso desde un espíritu de gobernanza colaborativa, con objeto de acordar las bases de una estrategia compartida para la reactivación económica y el empleo. El Gobierno Vasco y las tres Diputaciones Forales, cada una desde nuestra propia responsabilidad y competencia, nos comprometemos a alinear nuestras actuaciones para recuperar los niveles de empleo y bienestar previos a la crisis, promoviendo la reconstrucción económica y social de Euskadi. Desde el sector público debemos ser, hoy más que nunca, proactivos en la reactivación de la economía vasca y en la defensa del empleo como política social.

BASES COMPARTIDAS

Desde este diagnóstico y compromiso compartido, hemos decidido establecer un “Compromiso por la Reactivación Económica y el Empleo”, abierto a la participación del resto de agentes públicos y privados de Euskadi y sustentado en las siguientes bases.

